



aikor.

TOPIKOH

2026ko otsaila • #265

Zenbat gara?

TXORIERRIKO BIZTANLERIA 2005-2025

A close-up photograph of a hand holding a blue watering can, pouring water onto green plants. The background is blurred, showing more foliage and a window. A yellow banner with the text 'Haz Gaitezen' is overlaid on the image, with a mouse cursor pointing at it.

Haz Gaitezen

Gehiagora heltzeko.
Egin zaitez AIKORLAGUN

aikor.eus/babestu

aikor.

aikor.

Argitaratzailea:

TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorrizketan, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

Zuzendaria:

Xabier Goienetxe

Erredakzio burua:

Mikel Reina Barros

Maketatzailea:

Aner Mentxaka

Publizitatea:

Ruth Bilbao (688 782 642)

Kolaboratzaileak:

Maria Gorosarri
Imano Alvarez
Nagore Lopategi Escallada
Eduardo Martín
Txerra Rodriguez
Patria Barron San Blas
Iñaki Olabarrieta
Jose Angel Mentxaka
Estitxu Pérez Castro

Inprimategia:

Gertu

Banaketa:

Pac publicidad

Ale kopurua:

8.000

Lege gordailua:

BI 137-02 ISSN 1578-9322

aikortxori@aikor.com

688 864 135 · 747 406 561

aikor aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

CC BY-SA 3.0

Aitortu - Partekatu Berdin 3.0 Moldatu gabea



SUMARIOA

- 4 Iritzia
- 5 Gutuna
- 6 Berri laburrak
- 13 **Txorierriko eskola publikoak**
DIRUZ BABESTUTAKO EDUKIA
- 16 **Gotzon Barandiaran**
- 18 **Txoriberri**
- 20 **Txorierriko biztanleak 2005-2025**
- 24 **Sondikako inauteriak**
- 26 **Larrabetzuko basoak**
- 28 Zozketak
- 29 Mihigintza **ATAL BERRIA**
Hizkuntza, pentsatzen dugunetik amesten dugunera arte
- 30 EMAUS
- 31 Arrakala digitala
Algoritmoak eta demokraziaren ahultzea: ikusezinaren boterea
- 32 Menditik patxadaz
Barrika, Plentzia eta Gorliz. Natura eta historia
- 34 Herbarioa
Aingeru-belar landatua
- 36 Sukaldaritza
- 37 Denbora-pasak
- 38 Otsaileko agenda



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK BABESTUTAKO HEDABIDEA



IRITZIA

Euskarak ez dauka generorik

Hizkera sexista da gizonen pribilegio sozial guztien iturria. Pribilegioa da zapaltzaileen zapalkuntzatik lortzen duten abantaila bidegabekoa, gura edo ez, konturatu edo ez. Gizonen pribilegio sozialek gizon guztiei onura bidegabeak ematen dizkiete, andreen aurkako zapalkuntzatik lortuak... gizon jatorrei ere bai.

Hizkera sexistak zehazten du munduaren neurria gizonak direla. Horra hor, pribilegioen oinarria. Andreak, orduan, gizon bezalakoak gara. Euskararen izenondoek genero markarik ez daramatenez, hizkuntza ez-sexista dela entzun izan dugu. Baina euskarak ere generoa dauka. Hainbat izen sexuaren arabera bereizten dira: ama, aita, izeko, osaba... Euskaltzaindiaren Hiztegiak gipuzkerazko “anai-arreba” esamolde matxista hobetsi zuen eta bizkaierazko “neba-arreba” berdinzalea alboratu. Aikor.eus atarian, adibidez, “anai-arrebak” 42 albistetan agertzen da eta “neba-arrebak”, 25etan.

Hizkera sexistak zehazten du munduaren neurria gizonak direla. Horra hor, pribilegioen oinarria.

Generoaz harago, pilotari, futbolari, ekonomialari, abokatu, harakin, okin... entzuten ditugunean, gizonak irudikatzen ditugu. Euskarak, hor, ez digu gizonekin pentsatzera behartzen. Horri androzentrismoa esaten zaio. Gure irudikapena mugatuta dago, esparru horiek gizonak okupatu dutenez, ez dugulako genero bako moduan ikusten.

Orduan, androzentrismoa ez bultzatze-ko, “emakume” berba gehitzea baino ez

MARIA GOROSARRI
EHUko irakaslea



dago. Horregatik borrokatu zen Ana Morales: bere ama galletagilearen oroimen soziala ikus zedin. Bilboko Udalak “Galletagileen kalea” zabaldu zuen, baina “Emakume galletagileen kalea” ipini arte ez ditugu emakume langileak irudikatu.

Beraz, andrak ikustarazteko, gizonek jarraitzen dute kategoria unibertsala izaten: “galletagileak” eta “emakume galletagileak”, “nekazariak” eta “emakume nekazariak” etab. Konponbidea, sarritan, gizonak ere aipatzea izaten da, munduaren erdia bakarrik direla zehazteko. Esaterako, “gizonezko futbolariak”, “gizonezko pilotariak”, “gizonezko idazleak” etab.

Matxismoa gainditu gura duen gizarte batek hizkera ez-sexista behar du. Matxismoa gainditu gura dugun euskaldunok androzentrismoa borrokatu behar dugu. Gizarte berdinzalea gura duten gizonak haien neurri publikoa errealtateratzen moldatu behar dute: erdira izatera mugatu, hain zuzen.

Ikasten

Gabonetako bazkaloste batean jaio zen artikulu hau. Irakasle izan edo ez, heziketa, guztion bizitzan presente dagoelako, modu batean edo bestean. Eta berez, Hik-Hasik duen pedagogia aldizkariko urtarreleko alean argitaratuko bada ere aldi berean, ikuspegi zabal horretatik idatzi nahi dut gaurkoan. Bizitzan, orokorrean, ikasteko gaitasunaz. Inor ez denez jakitun jaiotzen, hark egiten duelako benetako aldea.

Esango nuke, berezkoa dela, akatsaren aurrean, erresistentzia pertsonala. Bakoitzaren lana da hausnarketa hori egitea. Baina sentsazioa dut, ataza konplikatzeko duen testuinguru sozial bat gehitzen ari gatzaiola guztion artean. Akatsa normalizatu beharrean, guztia parekatu dugulako erlatibismoaren izenean. Frustraziotik babestu nahian, hobetzeko aukera ukatzen ari garelarik gure haur eta nerabeei. Existitzen den gaitasunik preziatuena.

Hezituaren perspektibatik, akatsa deserosoa da, definizioz frustrantea.

Zergatik gabiltza gure buruari harrika orduan? Hezituaren perspektibatik, akatsa deserosoa da, definizioz frustrantea. Hobekuntzak onarpena eskatzen du hasiteko. Gauzak beste modu batean egiteko lana eta ahalegina ondoren. Hezitzailearen figurari erreparatuta, deskribatutako guzti horri aurre egin beharra dago, eta inorentzat ez da trago goxoa gatazka. Garrantzitsua da, hemen, hankasartzea ikaste prozesuaren barruan ulertzea eta hobekuntzarako bidea iradokitzea.

IMANOL ALVAREZ
Filosofia irakaslea



Egia da akatsak bakarrik seinaltatzen zizkigutela guri. Sarritan modu txarrean, gainera. Baina gu, beti bezala, beste muturrera joan gara erantzun zuzenaren bila: ukatzea. Harekin modu osasuntsuago batean harremantzea da benetako erronka. Dena ez dugu ondo egiten. Normala! Ikasteko gaitasuna ez garatzea da benetako drama bakarra.

Guzti honengatik, edozer gauza justifikatzen duten gurasoek, kritika eta ebaluazio negatiboak egiten ez dituzten irakasleek, eskola porrota estaltzeko kalifikazioak puzteko presionatzen duen hezkuntza sailak... mesede eskasa egiten diote sistemari. Horren emaitza dira frustrazioarekiko tolerantziarik gabeak, eskubideak aldarrikatu baina ardurak saihesten dituztenak, edo emaitza hobeak, lanean barik, kexatzen lortzen direla barneratu dutenak. Eman diezaiegun benetan ikasten ikasteko aukera.

GUTUNA



Independentzia, erdigunean

Azken urtean Ernaik independentziaren aldarria jarri du erdigunean, nazio pultsuaren apaltzearen ondorioz abiatuta identitate independentista indartzeko helburuarekin. Belaunaldi berriok askapen nazionalarekiko konpromisoa mundua sakoneko krisialdia bizitzen ari den unean hartu dugu.

Batetik, kapitalismoaren metaketa fase baten amaieran eta beste baten hasieran gaude eta ordena berria nork ezarriko duen lehia dago. Botere lehia horrek, zein AEBek euren nagusitasunari eutsi nahi dion, munduan gatazka belikoak areagotzea ekarri du. Azpimarratzekoa da azken urteetan palestinar herriaren aurkako genozidioaren gordintzea.

Bestetik, gazteok prekarizazio prozesu izugarria bizi dugu 2008ko krisialditik

hona; krisia besterik ezagutu ez duen belaunaldia gara. Ikasketak izateak ez digu lan duin baterako ezta etxebizitza baterako sarbidea bermatzen ere.

Azaldutako testuinguru ezegonkorraz baliatuta, eskuinak jendearen beharrekinekin konektatzea lortu du. Horretarako, diskurtso erreakzionarioak zabaldu dituzte herriko sektore zaurgarrienak elkar konfrontatuz. Betiere, aberastasunaren jabetza gutxi batzuen eskuetan egotea kolokan jarri gabe.

Azkenik, Euskal Herrian faxismoa, nahitaez, espagnolismoan eta estatuko nazioen ukapenean oinarritzen da. Horren adibide dira, azkenaldian, euskara jasaten ari den oldarraldi politiko eta judiziala edota autodeterminaziorako eskubidearen ukapena.

Ernaitik estrategia independentistan berresten gara, estatu propio batek mundu mailan zein herri gisa ditugun erronkei aurre egiteko gaitasun politikoa emango digulako. Hala ere, argi dugu prozesu gradual bat dela, eta burujabetza kuota handiagoak lortuz joan behar gara.

Logika horretan, azken urteetan errepausuak eman dira. Ezker independentismoa hegemonia lehian ari da askotariko planoetan. Elektoralki EAJrekin lehian, zein udaletan balio ezkertiar, feminista eta euskaldunetan oinarritutako proiektu eraldatzaileak sustatuz. Baina baita kale mailan ere: abenduan milaka ikaslek hezkuntza euskaldunaren alde kaleak betez, faxismoari kaleetan aurre eginez eta ikur espagnolistak ezabatuz, Guggenheim Urdaibai bezalako proiektu txikitzaileak geldiaraziz, bizi baldintza duinak borrokatuz eta beste hainbestetan. Horiek bestelako baldintza batzuk eraiki dituzte Euskal Herrian mundu mailako mehatxuen aurrean.

Ernai datozen hilabeteetan ere agente aktiboa izango da, gazteentzat heldulekuak eta norabide politikoa eskainiz. Urtarrilaren 24an Larrabetzun ospatu den Independentzia Egunean, martxoaren 17an 1.500 euroko gutxieneko soldata hemen erabakitzearen aldeko greban, Korrikan, Gazte Topagunean... ikusiko dugu elkar.

**ETXAHUN ARTETXE
LARRABETZUKO ERNAIKO KIDEA**

**ZAMUDIO-DERIOKO
LURLANGILEEN ETXEA**

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

Ford Goiri'78
ZERBITZU OFIZIALA

944 532 515
goiritaller@fordgoiri.com

BOSCH Service
ATEKA
Bosch Car Service

946 740 456
ateka@bosch-bcs.com

Txorierri Etorbidea, 46 - Pab. 5C - 5D
SONDIKA

Centro Dental Txorierri

Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759

Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337

Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462

Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno. 944 711 639 - Larrialdia: 670 985 885
www.cdtxorierri.es

ORTODONCIA21

Aitor de la Torre Euskadiko Selekzioarekin Espainiako Txapelketara

Urtarrilaren 10ean Euskadiko Poomsae Txapelketa jokatu zuen Aitor de la Torre, Miribillan. Freestyle modalitatean lehen postua lortu zuen. Bertan, parte hartzaileek akrobaziak egiten dituzte Taekwondoko eraso defentsekin, musika dago eta bakoitzak bere koreografia asmatzen du. Garaipen horri esker Euskadiko Selektzio kide bezala parte hartuko du derioztarrak otsailaren 21ean, Sevillan. Horrez gain, Poomsae kategorian bigarren postuan amaitu zuen.

Kultura Etxeko aparkalekuko erabilera arau berriak indarrean

Zamudioko Udalak gogorarazi nahi izan du urte hasierarekin batera indarrean sartu direla Kultura Etxeko aparkalekuko erabilera arau berriak. Arau berriek helburu dute ibilgailuen zirkulazioa bermatzea eta aparkalekuak behar bezala funtzionatzea.

Astelehenetik barikura gehieneko egonaldia 24 ordukoa da, hau da, muga horretatik aurrera, ibilgailua derrigorrez aparkalekutik atera behar da. Ibilgailu bat aparkalekutik ateratzen denean, ezin izango da berriro sartu gutxienez bi ordu igaro arte. Hori bai, zapatu, domeka eta jai egunetan, aparkalekua mugarik gabe erabili ahal izango da, denbora eta aldaketarik gabe. Egonaldi laburrei dagokienez, 15 minutu baino gutxiagoko egonaldiak ez dituzte aparkatze gisa kontuan hartuko. Arau horiek ez betetzea zigorrak edo ibilgailua kentzea ekar ditzakela gogoratu dute udaletik.

Horrez gain, kaptazio talde bat eta kudeaketa sistema bat instalatu dituzte –fotogramak antzemateko ikuspen artifizialeko bi kamerez osatua– eta informazio kartelak jarri dituzte aparkalekuan, herritarrei jakinarazteko eremu horiek monitorizatuta daudela.

BERRI LABURRAK



Beste Bira taldeko neskek laugarren postua lortu dute Euskadiko Kros Txapelketan

Loiuko korrika taldeak lehen aldiz parte hartu du emakumeekin Euskadiko Kros Txapelketan. Guztira bost mailatan parte hartu zuten urtarrilaren 11n, Ortuellan.

Loiuko Beste Bira taldeak beste mugari bat lortu du. Lehen aldiz emakumeen taldea aurkeztu dute Euskadiko Kros Txapelketara. Hori gutxi ez, eta laugarren postua lortu dute. Virginia Berasategi, Cinthya Moreira, Gartze Mentxaka eta Olivia Gotek osatu dute taldea. 13 urtez lokatzetan korrika egin barik egon den arren, Berasategi izan zen

taldeko azkarrena, 21. postuan amaitu zuen lasterketa 32 minutu eta 11 segundoko denborarekin. "Garaipen zaporea" duen emaitza dela nabarmendu dute korrikalariek.

Gizonezkoetan, Beste Birak zortzigarren postua lortu zuen, marka duten bosgarren postua bost puntura gertatu ziren bakarrik. Igor Garcia izan zen azkarrena, 17. postuan, 25 minutu eta 14 segundoko markarekin. Harrobiko mailetan, Harriet Aketxek eta Victor Gailindok Euskadiko 20 korrikalari onenen artean sartzea lortu zuten.

Otsailaren 1ean lehiatuko dute Zamudioko Krosa

Beste Bira taldeak eta Zamudioko Udalak elkarlanean antolatu dute Kiki Begoñaren omenezko lasterketa. Izena emateko azken eguna urtarrilaren 31 da, 13:00etan. Bizkaiko Federakuntzaren Eskolako Kroseko zirkuituaren geralekua izango da Zamudioko Bidekoetxe parke ingurua. 11:00etan emango diete lasterketei. Benjamin mailan 700 metro osatuko dituzte, 11:00etan aterako dira neskak eta 11:10ean mutilak. Alebinek 1,5 kilometro

egingo dituzte korrika, 11:20ean neskak irtengo dira eta 11:35ean mutilak. Infantil eta kadete kategorian, 2,1 kilometroko ibilbidea izango dute aurretik, 11:50ean aterako dira neskak eta 12:10ean mutilak.

Zamudioko herri krosak 4 kilometroko ibilbidea dauka eta otsailaren 1ean 12:35ean hasiko da. Parte hartzeko izena eman behar da 5 euroren truke. Gero, 13:10ean erreleboko lasterketa osatuko dute egitarauarekin amaitzeko.

Sondigarbi
GARBITEGIA

ITURRIGANE, 2
635584941

EGUNERO
8:00-22:00

auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txoriso 4, beheka B
48150 SONDIKA

634 410 470
auzokidefincas@gmail.com

BERRI LABURRAK

Martxoaren 14an Maskarada egingo dute Larrabetzun

Urtarrilaren 18an eman zioten hasiera ofiziala Zuberoako maskaradei, Ozazen, eta apirilaren 25era arte luzatuko dira, guztira 15 herritan osatuko dituzte. Larrabetzu gehitu beharko genuke zerrenda horretara. Hain zuzen ere, Bizkargi dantza taldearen ekimenez, maskarada egingo dute martxoaren 14an.

Aspalditik esku artean daukaten proiektua da, dagoeneko zenbait bilera egin dituzte. Ahalik eta gehien ikasteko irteera antolatuko dute eta guzti: otsailaren 14an Pagolakako maskarada ikustera

joango dira. Joan-etorria autobusean egingo dute, 07:00etan aterako dira eta 20:00etarako itzuliko dira. Dantza elkarteak bazkideek 10 euro ordaindu behar dituzte eta gainontzekoek 15 euro. Otsailaren 4a da izena emateko azken eguna, 644 16 60 34 telefono zenbakira idatziz egin daiteke.

Ordurako Larrabetzuko maskaradako lanak aurreratuta izango dituzte. Dagoeneko dantzak ikasteko bidaiak egin dituzte Zuberoara. Bizkargi dantza taldeak nabarmendu dute 60 laguneko taldea

elkartu dela, 40 herritar inguruk parte hartuko dute eta beste 20 inguru laguntzaileak izango dira. Guztien arteko "elkarlana" nabarmendu dute: "Zuberoako maskarada gurea ekarri eta gurea egin nahi izan dugu, gure erara mimoz moldatu dugu. Horretarako elkarlana ezinbestekoa izan da: herriko jostunak, musikariak, dantzariak..." Aurreratu dutenez, martxoaren 14rako egun osoko egitaraua prestatuko dute: goizean barrikadak, eguerdian bazkaria, arratsaldean antzerkia eta iluntzean elektrotzaranga.

Paula Barrutia Uriarteren lana berriro ere Goya sarietarako izendatu dute

Sondikoztarra makillaje eta ile apaintze onenaren sarirako izendatu dute Kar-mele eta Amaia Soler eta Sergio Perez lankideekin batera 'Maspalomas' euskal filmaren egindako lanagatik.

Hain zuzen ere, iaz saria bera irabazi zuten zuzendari berdinek zuzendutako 'Marco' filmagatik. Barrutiak aitortu du "oso albiste polita" izan dela: "Ez bakarrik makillaje eta ile apaintzeen aldetik, baizik eta lan talde osoagatik, jasotako izendapen guztienagatik eta filmak kontatzen duenaren garrantziagatik".

Espainiako Zinema Akademiak otsailaren 28an banatuko ditu Goya sariak, Bartzelonan. Eta urtarrilaren 13an, jakinarazi zituen kategorია bakoitzean izendatu dituzten lanen eta artisten izenak. Horien artean da 'Maspalomas' euskal filma: bederatzi izendapen lortu ditu guztira, eta, film onenaren garai-kurra irabazteko ez ezik, zuzendaritza onenarena lortzeko hautagai dira Aitor Arregi eta Jose Mari Goenaga. Halaber, filmean egindako interpretazioari esker, Jose Ramon Soroizek gizonezko aktore protagonista onenaren sarirako izendapena lortu du.



Ander Gazteluiturri Jimenez

Herria: Sondika | Adina: 23
Gradua: Ingeniaritza Mekanikoa

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobbie edo zaletasunik?

Nire izena Ander Gazteluiturri da. Unibertsitate aurreko ikasketak Galdakaoko Andramari Lanbide Heziketa zentroan egin nituen, bertan Mekanika Industrialeko Goi Mailako Heziketa Zikloa osatu nuen. Orain, Ingeniaritza Mekanikoko gradua ikasten ari naiz Mondragon Unibertsitatean, laugarren mailan. Nire hobien artean, gitarra jotzea eta boxeo nabarmentzekoak dira.

Zergatik aukeratu zenuen Ingenieritza Mekanikoko gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?

Beti gustatu zait mundu teknikoa eta goi maila heziketa zikloa egiten nengoela mantenimenduaren mundua ere gustatu zitzaidan. Behin zikloa amaituta ikasten jarraitu nahi nuen eta ingeniaritza mekanikoko graduak aukera eman zidan gradua eskuratze-ko 3 urtetan zikloaren konbalidaketei esker. Gainera Mondragon Unibertsitateak enpresa eta industriarekin duen hurbiltasunak erakarri egin ninduen ikasten duen bitartean praktikak egin ahal izateko.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Mondragon Unibertsitatean lan egitea eta ikastea polita izan da, zaila azkenean ingeniaritza bat da eta jakintza batzuk eskuratu ahal izateko lan egin behar da. Nire ustez aldi berean lan egiteak eta ikasteak helarazten zaitu eta zure denbora hobeto antolatzen ikasi behar duzu, beraz prozesua aberasgarria da.

Nola definituko zenuke MGEP jasotzen duzun ikasteko metodologia?

Beste leku batzuetako metodologiarekin konparatuta pixka bat ezberdina da. Ikasgaietan azterketa



partzialak ditugu eta seiheleko amaierako proiektua ere badugu. Honi esker, azterketetan presio gutxiago sentitu dut eta lasaia egon naiz. Seiheleko amaierako proiektua gehien gustatzen zaidan garaia da, praktikoa delako eta ikasi dugun gutzia praktikan jartzeko aukera ematen digulako.

Unibertsitatetik zer da gehien gustatzen zai-zuna? Eta zerbait hobetzeko?

Gehien gustatzen zaidana alde praktikoa da, bai ikasgaietan egiten diren praktikak eta baita seiheleko amaierako proiektua ere. Praktika dualak ere aipatuko nituzke. Seguru zerbait hobetu daitekeela, baina ez zait ezer burura etortzen.

Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, Dual eremuan. Non ari zara jardunean eta zer lan mota egiten duzun? (kasuan kasuko)


Praktika dualak egiten ari naiz Zornotzako Aludium enpresan. Aluminioa lantzen du, fundiziotik laminaziora. Mantenimenduko departamentuan nago akaberako zonaldean eta mantenimendu prebentiboa eta prediktiboa planifikatzen ditut.

Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?

Dualak aukera eman dit errealtatea ikusteko, hau da, enpresa batek zelan funtzionatzen duen ikustea ahalbidetu dit, gauza batzuk lanean bakarrik ikasi ahal dira eta.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Nire asmoak praktikak egiten nagoen enpresan lanean geratzea da oso gustura bainago. Hurrengo urteetan atzerria lan egitera joatea gustatuko litzaidake esperientzia internazional bat bizitzeko.

BERRI LABURRAK

24. Korrika martxoaren 29an goizaldeko 05:00etan sartuko da Txorierrira, Larrabetzutik

Korrika badator. 24. Korrikaren ibilbidea ezagutzera eman du AEK-k. Euskararen aldeko ekimen erraldoia Atharratzetik aterako da martxoaren 19an, eta hamaika egunez Euskal Herri osoa zeharkatu ostean, Bilbora helduko da martxoaren 29an.

Hain zuzen ere, ibilbidea amaituko duen domeka goizaldean helduko da 24. Korrika Txorierrira. Larrabetzutik ailegatu da Erletxetatik, 05:03an. Hortik aurrera Txorierriko herriak zeharkatuko ditu Bilbora sartu baino lehen.

Hurrengoko orduetan sartuko da Korrika herri bakoitzean:

- Erletxe: 05:03
- Larrabetzu: 05:17
- Lezama: 05:42
- Zamudio: 05:58

- Derio: 06:29
- Loiu (Larrondo): 06:37
- Sondika: 06:56
- Erandio (Asua): 07:06

Ibilbidearen xehetasunak KORRIKA aplikazioan azaldu dira eskusiban, eta bertan zein webgunean kontsulta daiteke nondik igaroko den 2.175 kilometro -eta 3.436 lekuko hartze izango dituen- lasterketa. Kilometroak erreserbatzeko aukera, berriz, otsailaren 1ean zabalduko da.

BERRIKUNTZA

Aurreko Korrikatik hona, aplikazioa berrikuntzekin dator. Batetik, 24. Korrikaren kantarekin egin bezala, Korrika

Laguntzaileek izan dira lehendabizikoak ibilbidearen berri izaten. Haiek hainbat informazio eta albiste jasotzen dituzte primizian, baita aplikazioa deskargatuta dutenek ere.

Ibilbideari lotuta, Korrika zuzenean jarraitzeko aukera ere emango du: bate-tik, furgonetaren geolokalizazioaren bidez, korrikalariak jakingo dute Korrika garaiz, aurrera edo atzerapenez datorren —erabiltzaileek une oro egiaztatu ahal izango dute nondik dabilen lasterketa—; horri lotuta, interesgarria da jakitea aplikazioak bilatzaile aurreratua duela: erraz ikusi ahal izango da non dauden herri, eskualde eta/edo kilometroak; bestetik, furgonetako zuzeneko irudiak eskainiko ditu 24 orduz.

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak

GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak

640 26 84 15
94 455 42 15
Garaioltza, 74
Lezama

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

A black, cylindrical, three-legged pressure cooker or steamer sits on a white table. The device has a silver-colored lid and a silver-colored band around the middle. A white tag is attached to the lid. On the front of the black body, there is a silver-colored illustration of a steam locomotive. The background shows a green wall and red railings.

Sariei dagokienez, lau kategoria daude: Euskal Herriko saria, Herrialde saria, Loiuko saria eta Gizarte Sareetako saria. Euskal Herriko sariak 2.500 euro banatuko ditu: 600 euro eta txapela, irabaz-

Bestalde, Herrialde sariak 500 euro banatuko ditu: 100 euro, herrialde bakoitzeko; eta Gizarte Sareetako sariak, 50 euroko sari bakarra. Azkenik, Loiuko sariak 3.300 euro banatuko ditu herritarren artean: 400 euro eta txapela, irabazlearentzat; 375 euro, bigarrenarentzat; 350 euro hirugarrenarentzat; 325 euro, laugarrenarentzat; 300 euro, bosgarrenarentzat; 275 euro, seigarrenarentzat; 250 euro, zazpigarrenarentzat; 225 euro, zortzigarrenarentzat; 200 euro, bederatzigarrenarentzat; 175 euro, hamargarrenarentzat; 150, hamai-kargarrenarentzat; 125 euro, hamabigarrenarentzat; 100 euro, hamahirugarrenarentzat; eta 50 euro, hamalau garrenarentzat. Gainera, saskiak banatuko dituzte 15. postutik 20. postura arte, eta txakolina eta ardo 21. postutik 25. postura arte.



































































































































BERRI LABURRAK**4 talde eta 22 kirolariri aitortza, Derioko V. Kirol Galan**

Derioko Udalak, beste urte batez, omendu nahi izan ditu herriko talde eta kirolariak: “Lortutako lorpenez gain, kirolak Derioko komunitateari ematen dizkion balioak azpimarratuz”. Guztira 24 izan ziren omenduak urtarilaren 16an Kultur Birikan.

Dagoeneko derioztarren egutegian gorri markatutako ekintza da Kirol Gala. Herriko kirol talde eta kirolariei aitortza bat da “euren ibilbideagatik, konpromisoagatik eta udalerriko kirol-bizitzari egindako ekarpenagatik”. Aurten, adibidez, txapela Txorierri Basketland saskibaloi klubak jaso du, 2025ean 10. urterrena ospatu baitzuen.

Esther Apraiz alkateak azpimarratu zuen ekitaldiak emaitzak bakarrik ez, transmititzen diren balioak direla garrantzitsuak: “Kirola gizarte eraldaketarako tresna indartsua da, eta kirol galan Derion haren sustapenean erreferente

diren pertsonak txalotzen ditugu”. Era berean, nabarmendu zuen galak, sariak banatzeaz harago, “elkarrekin mugitzen den herri baten harrotasuna” ospatzen duela.

Gala, halaber, tokiko kirol-elkarte eta klubek egiten duten funtsezko lana ikusarazteko aukera izan zen. Derioko Udalak publikoki eskertu zuen Plan Estrategikoa lantzeko egindako ekarpena. Aitor Aurrekoetxea Kirol zinegotziak azken urteotan “kirol irisgarriago, inklusiboago eta kalitatezkoago baten alde egindako lana” azpimarratu zuen. “Aurten mugari garrantzitsua ezarri dugu Derioko Kirolaren 2025-2028 Plan Estrategikoa onartuta; herriarren parte-hartzetik sortutako dokumentua da, eta 45 neurri zehatz jasotzen ditu kirola osasunaren, ongizatearen eta gizarte- kohesioaren eragile gisa indartzeko”.

Gainera, Aurrekoetxeak gogoratu zuen 2026an hasiko dela Derioko Udal Kirol-degiaren eraberritze integraleko lehen fasea, “kirol instalazioen irisgarritasuna, energia eraginkortasuna eta erabiltzaileen erosotasuna nabarmen hobetuko dituen inbertsio estrategikoa”.

SARITUEN ZERRENDA**TALDEAK**

- Untza Mendi Taldea.
- CD Derio (Emakumezkoen A eta Kadete taldeak).
- Emauseko pala egokituko ekipoa.
- Txorierri Basketland SK (Gizonezkoen eta emakumezkoen junior eta emakumezkoen senior taldeak).

KIROLARIAK

- Taekwondo: Doyan Klubeko Violeta Pérez Manzano, Alaitz Antón González, Pablo Jiménez Martín, Ane Arana, Izei Barcenilla, Ainhize Achutegui, Jon Jorge, Laura Jorge, Ane Vallo Zurdo, Aitor de la Torre, Garazi de la Torre, Lukas Fernández eta Leo Fernández. Garriko Klubeko Elaia García Madroñal.
- Kickboxing: Aitzol Bilbao, Amaia Cores, Olaitz Etxarri eta Aitor Arribas.
- Miragarri Taldea A.D.: Nadia Canales.
- Triatloia: Markel Cidón Uriá.
- Atletismoa: Harriet Aketxe eta Zeiane Sagarduy.



RADIO TAXI FEMADE

Zure taxi, Txorierrikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Lolu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE

BERRI LABURRAK



Loiuko Udalak Hariztondo-Txiline eremuan 400 etxebizitza eraikitzeko baimen guztiak lortu ditu

Azken unean, Bilboko Aireportuak plan zuzentzaile berria onartu aurretik, lortu dute aireportuak kudeatzen dituzten hiru erakundeek (Aena, Aesa, Enaire), Garraio Ministerioaren eta Abiazio Zibilaren oniritzia. Loiuko Udalak 400 etxebizitza eraikiko ditu Hariztondo-Txiline eremuan, Bilboko Aireportua kudeatzen duten erakundeek oniritzia jaso ondoren. Hau da, hainbat urtetako blokeoaren ondoren, Aena, Aesa eta Enaire erakundeek oniritzia ez ezik, Garraio Ministerioaren eta Abiazio Zibilaren oniritzia ere lortu du. Orain arte alboratuta izan dute proiektua, “aireportutik gertu zegoelako eta emisio akustikoen eraginpeko eremua zelako”.

Hariztondo-Txilineko eremuak 157.000 metro koadroko azalera dauka, eta hiritzintza proiektu horren ondorioz herriko etxebizitza parkea %39 haziko da. Etxebizitza horien artean etxebizitza babestuek, alokairu sozialekoak eta libreak egongo direla aurreratu dute.

Loiuko gobernu taldeak mugarri historikotzat jo du: “Urteetako lan arduratsua eta etengabearen emaitza da, gure herriko benetako behar bati erantzuteko eta Loiuko familientzat aukera berriak zabaltzeko. Aurrerapauso handia da, ikuspegiarekin, seriotasunarekin eta herriaren aldeko konpromisoarekin lan egiten denean lor daitekeena”.

IV. Lezamako pilota goxua txapelketa

Izena emateko epea zabalik dago otsailaren 20ra arte, 94-611 56 21 telefonora deituz edo @lezamakopelotakluba Instagramera idatziz. Izen ematea doakoa da. Hiru kategoria banatu dituzte: lehen maila, bigarren maila eta mistoa. Txapelketaren izaera herrikoa mantenduz, parte hartzeko baldintza da pilotariak Lezaman jaioak izatea, Lezaman bizitzea, Lezamako pilota klubeko gurasoak izatea edo Lezamako pilota klubeko fitxa eduki izana. Horrez gain, gogoratu dute federatutako edo eskola mailan lehiatzen duten pilotariek ezin dutela izena eman. Gehienez maila bakoitzean 15 bikotek eman dezakete izena.

Martxoaren 6tik hasita, partidak barikuetan jokatu dute. Antolatzaileek nabarmendu dute neurketak ezin direla atzeratu, bai, ordea, aurreratu. Gainera, bikote berak ezingo ditu egun berean bi partida jokatu eta ordezkariak erabili daiteke txapelketa osorako. Azkenik, gogoratu dute iazko bigarren mailako irabazleek lehen mailan eman behar dutela izena. Lehiak zortzi tantoko bi jokotara jokatu dira, eta berdinketa egoten bada, hirugarrena bost tantora jokatu da. Piloten kudeaketa klubaren irizpidearen esku egongo dela esan dute.



SARRIKOLA OGITEGIA

Euskal pastela
Baserrako ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta



Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

KAFETEGIA · OKINDEGIA

LA MODERNA

Egunero, 06:00etatik zabalik



Aretxalde, 64 · LEZAMA · 946 095 091

E. Bilbao Bidaiak



Eskola garraioa
Kirol elkarteak
Ezkontzak
Txangoak
Jubilatuak bidaiak
Sagardotegiak
Kongresuak

eneko@bilbaobidaiak.eus
663 231 001

BERRI LABURRAK**Sondikako Udalak %4,3 handitu du aurrekontua**

Sondikako Udalak 7.812.228 euroko aurrekontua izango du 2026an, hau da, %4,3 handitu dute. EAJren eta PSEren aldeko botoekin onartu dira aurrekontuak eta EH Bilduk aurka bozkatu du.

Udaletik nabarmendu dute aurrekontuaren %9 inbertsioetara bideratuko dutela, besteak beste, kirol instalazioak hobetzera, Gorondaganen rokodromoa egitera, auzoetako irisgarritasuna hobetzera eta gazteentzako eta auzo komunitateentzako laguntza berriak eskaintzera.

Loiuko Udalak %14 baino gehiago igo du aurrekontua

Loiuko Udalak 6.068.000 euroko aurrekontua onartu du 2026rako, hau da, 2025ekoa baino %14 handiagoa. EAJk eta EH Bilduk alde bozkatu dute eta PPK aurkako botoa eman du. Loiuk aurrekontua bikoiztu egin du hamarkada batean: 3,4 milioi kudeatu ziren 2016an, eta 6 milioi, berriz, 2026an.

Aurrekontuan "herritarrek eskatutako proiektu estrategikoak" bildu dituzte. Gazteriaren eta etxebizitzaren aldetik, batez ere Hariztondo-Txiline sektorearen hirigintza garapena nabarmendu dute, baita etxebizitza publikoaren eraikuntza eta Landatxueta kirol-gunean udal igerilekuak eraikitzeko lizitazioa ere.

Deriok inbertsioak indartuko dituen ia 13 milioiko aurrekontua onartu du

Derioko Udalak urte berrirako bere aurrekontua onartu du. 2025ekoarekin alderatuta, aurrekontua %4,19 igo da eta guztira 12.886.673 euroko aurrekontua izango du aurtengo. Inbertsioak dira Derioko 2026ko aurrekontuaren ezaugarri nagusia, 827.996 euro bideratuko dituzte.

Hiru dira proiektu nagusiak. Batetik, futbol zelaia inguruan taberna bat sortu nahi dute, 2026ko partaidetza bidezko aurrekontuetan gehien bozkatutako proiektua izan zela gogoratu dute. Bestetik, udalerriko hainbat eremu estaltzeko intentzioa daukate. Azkenik, kiroldegia handitzeko eta modernizatzeko lehen fasea osatuko dute.

Zamudioko Udalak 10 milioi euro baino gehiagoko aurrekontua dauka

Zamudiok ere dagoeneko aurrekontuak onartu ditu 2026rako. Udal gobernuak EAJk alde bozkatu du eta EH Bilduk aurka. Guztira 10.415.470 euroko aurrekontua da, hau da, 2025ekoarekin alderatuta %8,46 igo da.

Udal gobernutik nabarmendu dute aurrekontuak "Zamudioren etorkizuna sendotzeko eta udalerriko beharrei erantzuteko tresna nagusiak" direla.

Larrabetzuko aurrekontuaren izaera parte hartzailea nabarmendu dute

Larrabetzuko Udalak 3.332.385 euroko aurrekontua dauka 2026rako. Hau da, diru kopuru aldetik, igoera txiki bat dago bakarrik 2025eko aurrekontua 3,18 milioikoa izan baitzen.

Aurtengo proiektu nagusietako batzuk dira Zaintza Plana, Herri Taxia, futbol zelaiko aldagelaren eraberritzea, Goikoeliazalde-Gaztelumendi auzoen arteko oinezkoentzako bidea edota Basagurenalde eta Gaztelumendi kaleak Errebale kalearekin lotuko dituen bidearen lanak.

Lezamako Udalak %89,66 handitu ditu inbertsioak 2026ko aurrekontuetan

Lezamak 3.680.272,56 euroko aurrekontua onartu du 2026rako, hau da, iazkoarekin alderatuta %8,22 igo dute. Kontuek inbertsio publikoa ezartzen dute ardatz estrategiko nagusietako bat bezala.

Lezamako Udalak %89,66 handitu ditu inbertsioak. Guztira 241.860 euro inbertituko dituzte. Inbertsio ahalegin hori udal azpiegiturak hobetzeko, hiri mantentze lanak egiteko, eraikin publikoak kontserbatzeko eta bide segurtasuna indartzeko jardueretara bideratuko dute.

TXORIERRIKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAK

erdu eta
matrikulatu

Lezamako eskola

Ikasle bakoitzaren ongizate emozionala zein garapen integrala oinarri hartuta, bizikidetza positiboa da gure helburua. Haur Hezkuntzan, umeak mugimendu autonomoan murgilduta daude, esplorazioa modu naturalean biziz. Lehen Hezkuntzan,

berriz, autonomia, manipulazioa eta ikasketa kooperatiboa sustatzen ditugu. Ikasle nagusiak txikiekin elkarrengaitik dute, laguntza emanez eta esperientziak partekatuz, elkarlanean eta errespetuan oinarritutako harreman naturalak sortuz.

Euskara eta euskal ohiturak landu eta zabaltzen ditugu kantagintza, antzerkia, idazleak zein irteeren bitartez. Eskola txiki izateak ikasle bakoitza modu pertsonalean ezagutzeko eta familiengandik hurbil egoteko aukera eskaintzen digu.



944 288 315 · lezamakoeskola@lezamakoeskola.com

Txorierri Institutua BHI



Euskara eta euskal kulturaren oinarritutako hezkuntza-proiektu berri-tzailea eta eleanitza da gurea. Gune eta instalazio berriei esker, ikasleei baliabiderik egokienak eskaintzen dizkiegu konpetentzietan oinarritutako hezkuntza-proiektuarekin ekiteko. Hautazko eskaintza zabala eta maila

bakoitzean arloren bat gutxienez ingelesez lantzeko aukera ere badute ikasleek. Bestalde, ikasle eta familiekiko gertutasunak ahalbidetzen digu ikasleen jarraipen estua eta aniztasunari erantzun egokia ematea. Herrien arteko lotura, elkarbizitza eta girotze arrakastatsua sustatzen da ikastetxean,

ikasleen ongizatea eta garapen integrala erronka izanik.

Txorierri BHI ezagutzera emateko asmoz, Txorierriko eskoletan familiantzako aurkezpen-saioak eskainiko ditugu urtarrean. Eskoletako zuzendaritzak bidaliko dizue bilereki buruzko informazioa.



944 287 920 · zuzendaria@txorierribhi.com

MATRIKULAZIO EPEA: Otsailaren 3tik 14ra



Larrabetzuko eskola

Ikasle bakoitzaren beharrianetara ego-
kitzen gara, umeak beti erdigunean
ipintzen ditugu eta. Eskola inklusiboa da
gurea, eta patio eta gune biziak sortzen
ditugu etengabe. Era berean, hainbat
egitasmotan gabiltza murgilduta, hala nola

Eleaniztasuna Proiektua (euskara ardatza
dela 3 hizkuntza ikastea), IkasLab, STEAM,
Emozio-tailerrak eta Hezkidetza.

Bestalde, ikasleen bazkaria gure sukaldean
bertan prestatzen da, eta ortua dugunez,
landatzen ditugun sasoiko produktuak

zuzenean joaten dira sukaldera. Gainera,
auzoari zein herriari zabaldua dagoen
eskola dugu, eta gurasoek eta udalak parte-
hartze aktiboa dute bertan. Otsailaren
3an, 15:00etan, informazio-bilera egingo
dugu IkasLab gelan. Erdu!



944 287 860 · zuzendaritza@larrabetzukoeskola.eus



Derioko eskola

Derioko Herri ikastetxean ikaslea da
ardatza. Metodologia aktiboen bi-
dez ikaskuntza esanguratsua sustatzen
dugu, eta Haur Hezkuntzan mugimendu
autonoma oinarritzko tresna da, haurren
garapen integrala bultzatzeko.

Bizikidetza eta hezkidetza dira gure
hezkuntza-proiektuaren zutabe nagu-
siak, errespetuan, berdintasunean eta
lankidetzan oinarritutako komunitatea
eraikiz. Euskarari oinarritzeaz gain, nor-

malkuntza eta eleantiztasuna uztartzen
ditugu ikasleen komunikazio-gaitasunak
sendotzeko.

Horrez gain, hainbat proiektu berritzaile-
ren parte gara —IkasLab, STEAM, ADI,
Eusle, Bidelagun, Berbalapiko eta Indar-
tuz—, ikasleak modu aktiboan inplikatur
eta etorkizuneko erronketarako prestatuz.
Eskola-komunitatearekin lotura estua
eta hurbila lantzen dugu egunerokoa:
ikasleak, familiak, hezitzaileak eta bes-

te langileek ere, elkarrekin aritzen gara,
konfiantzan eta elkarlanean oinarritu-
tako giroa sortuz.

Ikastetxean hainbat zerbitzu eskaintzen
ditugu: ikasleen bazkaria eskolako suka-
ldean bertan prestatzen da; guraso-elkar-
teak antolatuta, goizeko harrera-zerbit-
zua (07:30–09:00) eta askari-zerbitzua
(16:00–17:00) eskaintzen dira; eta, horrez
gain, eskolaz kanpoko ekintza sorta zaba-
la dago eguerdian eta arratsaldean.



944 541 246 · matrikula@deriokoeskola.com

MATRIKULAZIO EPEA: Otsailaren 3tik 14ra



Zamudioko eskola

Zamudioko eskolan, umearen garapen integrala eta orekatua dugu ardatz. Horregatik, metodologia aktiboak erabiltzen ditugu, ikasleen beharrianetara egokituta eta haien jakin-mina piztuz. Haur Hezkuntzan, mugimendu autonomia, segurtasun afektiboa eta autonomia pertsonala sustatzen dituzten barneko eta kanpoko guneak sortu ditugu, umeek askatasunez

eta konfiantzaz ikas dezaten. Lehen Hezkuntzan ere bide beretik jarraitzen dugu, ikasketa kooperatiboa, manipulazioa eta esperientziaz oinarrituta. Ikasleek beren erritmoan eta modu esanguratsuan ikastea da gure helburua. Gure hezkuntza-proiektuaren zutabe nagusiak dira: aniztasuna, inklusioa, berdintasuna eta jasangarritasuna. Eta hori guztia, euskara ardatz nagusi izanik.

Eskola komunitate ireki eta parte-hartzailea gara: familiekin eta herriko eragileekin elkarlanean aritzen gara, proiektua egunero aberastuz. Gainera, familiei laguntzeko, zerbitzu osagarriak eskaintzen ditugu, hala nola harrera goiztiarra eta eskolaz kanpoko ekintza ugari. Zamudioko eskolan, ume bakoitzak bere lekua du. Zatoz gu ezagutzera eta parte hartu gure proiektuan.



944 288 302 · zuzendaritza@zamudiokoeskola.net

Sondikako eskola



Gorondagane Eskolan azken urteotan ezarritako hezkuntza-errotak modu jarraituan erantzuten ari gara eta finkatutako helburuak betetzen ari gara. Lehen Hezkuntzan, dagoeneko txertatuta daukagu metodologia-ereduaren eraldaketa eta ikasleek, besteak beste, ikas-egoeren bitartez bereganatzen dituzte gaitasunak.

Haur Hezkuntzan, ikaskuntza aktibo eta parte-hartzailea sustatzen dugu, proiektuen bidez lan eginez. Metodologia horrek ikasleen interesa, autonomia eta motibazioa indartzen ditu, eta ikasleak ikaskuntza-prozesuaren erdigunean jartzen ditu. Bestalde, robotika-saioak antolatu eta sistematizatu ditugu bi etapetan. Saio

horiek modu planifikatuan egiten dira, pentsamendu logikoa, arazoaren ebazpena, sormena eta talde-lana garatzeko. Azkenik, ikasleen garapena hobeto baloratzeko, ebaluazio konpetentziala ezarri dugu. Horren bidez, ikaskuntza-prozesuari garrantzi handiagoa ematen diogu, eta ikasleen aurrerapena modu jarraitu eta orokorrean aztertzen dugu.



944 531 020 · cepgorondaganehli@gorondaganeeskola.com

Ez garelako dena ahazteko nahikoa biziko

GOTZON BARANDIARAN ARTEAGA

Larrabetzuarrak ia denetarik egin izan du bere ibilbidean, kulturako zirrikitu guztiak arakatu ditu. Orain, arakatu baino, aukeratu egin ditu. Batetik, 'Galbahe' diskoa kale-ratu du, poema bakoitzari doinua hautatuz. Bestetik, Nazim Hikmet idazlea aukeratu du bere poemak euskarara itzultzeko.



T MIKEL REINA BARROS **Q ANER MENTXAKA ALVAREZ**

Galbahea liburu argitaratu zenuenean, bazeneukan dis- koaren ideia buruan?

Galbahearen kontzeptua aspalditik neukan buruan lan egiteko, eta ez bakarrik literaturan, haratago ere. 2019an Gorka Urbizuk eta biok *Galbahe* izeneko errezi-taldi musikatu bat eskaini genuen Azpeitiko San Agustinen. 400 pertsona elkartu ziren. Orduan, sare sozialetatik, adibidez, informazio gaindosi bete-betean geunden, gezur asko, ultraeskuineko mezu asko... Zer iragazi behar dugun kontzeptu hori landu nahi nuen, zikinkeria eta zabor guzti hori baztertu eta benetan balio duenarekin geratu. Gero, berriro galbahearen inguruan idazteko gogoia etorri zitzaidan. 2023an hasi nintzen poema liburu idazten, eta idazten nuen bitartean dagoeneko poemak batzuk abestu egi-ten nituen. Katamalorekin lortu genuen

poesia hedatzea ohiko irakurleetatik haratago, ariketa hori errepikatzea ideia ona iruditu zitzaidan. 2024an liburu aurkeztu nuen Literaturia egitasmoan. Ordurako bagenituen kantak eta hortik aurrera bost emanaldi egin genituen, oso gustora aritu ginen eta entzuleengandik ere harrera oso ona jaso genuen. Horrenbestez, iaz, Rafa Ruedaren estudioan elkartu ginen, eta diskoa grabatu genuen. Hau da, diskoaren ideia ez zegoen hasie-ratik nire buruan.

Talde anitza da zuena, herriko artis- tetatik hasi, Txorierrri eskualdera za- baldu eta Rafa Ruedara arte helduz.

Larrabetzuko Andra Mari kalean Mixe-rabliak taldeak duen lokalean hasi ginen. Bertan elkartu nintzen Lander Bilbao eta Urdin Baraiazarrarekin. Aspaldi neukan gogoia beraiekin lan egiteko, asko gusta-

tzen zait egiten dutena. Melodiekin jolas-ten hasi ginen 2023an, kantak gorpuzten joan ziren bi gitarrarekin eta mandolina batekin. Testuak zein instrumenturekin lotzen nituen bilatu eta erabaki nahi nuen. Adibidez, nire buruan poeme-kin biolinak entzuten nituen. Emaku-mezkoak sartu nahi nituen taldean, eta Uxue Garcia loiuztarra eta Mariana Blan-co laguntzeko prest agertu ziren. Kantek gero eta gorputz sendoagoa eta zabalagoa zutela ikusi genuen eta kantuen sorme-nean eta ekoizpenean esperientzia zeu-kan norbait behar genuen: Rafa Rueda. Konposantzailea izateaz gain, ekoizle lan asko egin izan ditu.

**Gaur egun musika gero eta hedatua-
go dago, poema errezi-taldi musika-
tuak egiten dira, bertsolaritzan ere
hasiak dira musika sartzen...**



Hori Baiko kontzertua (GAIZKA PEÑAFIEL) eta Nazim Hikmeten poemen itzulpen liburua.

Barandiaranen eskutik Galbahe disko bat eta Nazim Hikmet poema liburu bat zozkatuko ditugu. Informazioa 12. orrialdean.



Gurean, idazle eta musikarien arteko elkar eragina beti egon da. Adibidez, nire 'Hitzen ahariea' liburua horri buruz doa. Etengabea izan da harreman hori. Berezko lotura bat izan da. Gainera kontuan izan behar da, gaur egun are gehiago, euskarazko kultur adierazpideetan irismen eta zale gehien dituen musika dela, alde handiz gainera.

Hori Bain kontzertua eskaini zenuen abenduaren 19an. Zelan bizi izan zenuen?

Harrera itzela izan zen. Egia esan, errespeturik handiena nire lanak etxean aurkezteak ematen dit. Etxean beti hobeto egiteko desira hori daukazu. Emanaldi ederra izan zen, diskoan parte hartzen duten Amets Aranguren eta Gaizka Sarasola ere etorri ziren, eta kontzertua borobildu zuten. Kontuan izan behar da ia urtebete generamala zuzenean elkarrekin jo barik. Diskoa bakoitzak bere aldetik grabatu zuen, ez denok elkarrekin. Beraz, urduritasun puntu bat ere bazegoen.

Diziplina anitzeko zure zerrenda amaigaberako beste lan bat: Nazim Hikmet turkiarraren poemak euskaratu dituzu.

Susa argialetxearen Munduko Poesia Kaierak bildumarako enkargu bat izan zen. Poeten zerrenda bat eman zidaten, eta zalantza barik, Hikmet aukeratu nuen. Gabriel Arestik bere 'Lau gartzelak' izeneko poemak itzuli zituen, eta bere bizitza latzaren berri ere banuen. Bere herriari eta hizkuntzari oso lotuta zegoen. Familia on batetik etorri arren, komunista egin zen eta herri xehean sartuz asko eraldatu zen pertsonalki. Gobernuaren errepresioa jasan zuen, 13 urte eman zituen kartzelan eta urte askotan bere herrialdetik kanpo bizi behar izan zuen. Distantziatik kantatu behar zion Turkiako langile klase borrokariari. Kanpotik idatzi behar izan horrek mina eragin zion. Gazte hil zen, eta heriotza presente dago bere azken poemetan. Min guzti horrengatik, samurtasun handiko testuak aurkitu ditut. Galbahearen gai nagusietako bat maitasuna

da, eta Hikmetek ere erabiltzen du kru-delkeriari, injustiziari eta bazterketari aurre egiteko. Bat zetorren orduan ni idazten ari nintzenarekin, beraz, oso errez egin nuen.

Euskararen eta Euskal Herriaren egoerarekin ere lotu daiteke?

Gabriel Arestik zerbaitengatik aukeratu zuen Hikmet. Batetik, ideologiagatik, baina batez ere bere idazteko moduagatik. Hikmeten nahi zuen herritar alfabetatu gabeek bere testuak ulertzea, eta hori Arestik ere egin izan zuen, euskara argi baten idatzi. Ahalik eta jende gehienak uler zezaten idazten zuten.

Eta zelango harrera izan du liburuak?

Oso zaila da, are gehiago itzulpen bat izaterakoan. Herrietako irakurle taldeetan, adibidez, ez da poesia irakurtzen, narrazioa da nagusi. Idazle batzuen erantzuna jaso dut eta oso gustuko izan dutela esan didate. Denetarik idatzi izan dut eta baztertuenetako bat da itzulitako poesia liburuak. ●

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO
EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI
libreriapapeleria_zamudio@hotmail.com
Gorbea kalea, 4 · ZAMUDIO · 944 522 910

TXORIERRI
Inmobiliaria
Justo Ajuria, 2 SONDIKA
944 711 282
info@inmobiliariatxorierri.com

IZ
ILE APAINDEGIA
946036943
Txanibangorri 42
ZAMUDIO
iz.ilepaindegia@gmail.com



2026ko aurrekontuak lanean jarraitzeko

Abenduaren 15ean, Osoko Bilkurak 2026ko ekitaldirako hiru aurrekontu onartu zituen: Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatearena, “Txorierriko Udal Euskaltegia” erakunde autonomoarena eta EGAZ Txorierriarena. Mankomunitatearen 2026. urterako aurrekontua 11.639.969,94 eurokoa da. Txorierriko Udal Euskaltegiarena eta Behargintza Txorierri, SLrena, berriz, 969.638,25 eta 1.037.410,52 eurokoa, hurrenez hurren.

Hauek dira 2026an bete nahi diren helburuak:

- 2026ko ekitaldirako, langileen ordain-sariak % 2,00 handitzeko kreditua esleitu da, 2025 eta 2026rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak ezarritakoaren kontura.
- Gastu arrunta % 8,67 gehitu da, batez ere honako zerbitzu hauetarako esleitutako gastua handitu delako: hondakinen tratamendurako, 335.000,00 € (% 29,15); bide-garbiketarako, 339.829,68 euro gehiago aurreko aurrekontuko zenbatespenen gainean, eta etxez etxeko laguntza-zerbitzuan, 288.000,00 euroko gehikuntzarekin (% 24,24). Batez ere Mankomunitatearen egoitzaren kontserbazioari, konponketari eta mantentzeari aurre egiteko behar diren partidak mantentzen dira, bai eta bere jarduera normaltasunez garatzeko beharrezkoak diren guztiak ere. Partida horiek kalkulatzeko kontuan hartu dira 2025ean egindako gastuak, azken

hiru urteetakoak eta aurreikusitako beharrak.

- Euskararen erabilera eta ikaskuntza sustatzea, aurrekontua 327.469,33 eurora arte handituz. Euskararen kale erabilera aztertzekeo partida bat jasotzen du, eta %16,36 handitu da TO-TOAN-ekin duen hitzarmena.
- Berdintasun programak % 3,5 igoera izan du, estrategikotzat jotzen delako txorierritarren artean emakume eta gizonen arteko berdintasun-politikoei jarraipena ematea.

	2005	2026	Igoera
Mankomunitatea	10.914.098,05 €	11.639.969,94 €	% 6,65
Udal Euskaltegia	837.802,92 €	969.638,25 €	% 15,74
EGAZ Txorierri	1.035.005,84 €	1.037.410,52 €	% 0,23

TXORIERRIKO BERBAK

Hotzak gagozenerako berbak

Urte hasiera hotza euki dogu. Hori datu objektiboa dan arren, sarritan hotz edo bero sentsazioa oso ezbardina izaten da lagun batetik bestera. Etxean zein beharlekuan, esaterako, beti hotzak dagozan pertsonak daukaguz: hozberak. Lartxo esatea badi-rudi be *hotzak hilik* egoten dira pertsona horrek, hori dala-eta Txorierri *hotza-*

kilak esaten jake. Halangoei *hozkirriak* be esaten deutsee batzuek, baina gure artean berba hori normalean eguraldi freskoa izentatzeko erabiltzen dogu, baita *hotzikara* adierazoteko be. Hotzikarak, dana dala, sukarrak edo giroa hozteak eragiten dauzen horri esaten deusagu. Ezpainetako pupei be *hotzikarak* esaten deusegu; erderaz “calentura”.

Bitxia bada be, Euskal Herrian hozberak edo hotzakilak makaltzat hartu izan dira. Horren erakusgarri dogu *hoz-kil* berbea. Adiera bi daukaz: 1) hozbera, 2) ahula.

Esanak esan, haize fina dabilen sasoi honetan, onena erropa aproposa janzte eta babesean ibiltea, dinoen lez adinagaz hozberatu egiten gura eta.



Txapelketa berria

GUROT TALDEKA

Eman erruletari eta irabazi!

Jolastu zure lagunekin eta lortu super sariak!

Eman erruletari, erantzun zuzen galderak eta eskuratu puntuak zure taldearentzat!
12 eta 18 urte artean badituzu, sortu hiru lagunekin taldea

Enkarterri • Getxo • Gemika-Lumo • Mungia • Txorierri

Gainera, eskualdeko bi talde onenek, sariak irabaziko dituzue!!

Izen-ematea: otsailak 2 - martxoak 8

Lehiaketa: martxoak 9 - apirilak 13

Final handia: apirilak 24 (San Mames)

Eman izea!

Gazteentzako aholkularitza sexologikoa martxan!


Urtarriletik aurrera, 16-29 urte bitarteko gazteei zuzendutako sexualitate eta harremanei buruzko aholkularitza telematiko zerbitzua martxan jarriko da Txorierriko Mankomunitatean, Bizkaia Gaztearen kolaborazioarekin.



Zerbitzu hau prebentzioan, osasunaren sustapenean eta hazkunde erotikoa oinarrituta dago. Esku-hartzearen eragile nagusia sexualitatearen eta erotikaren kultura osasuntsua, atsegina eta arriskurik gabeta sustatzea da. Horretarako, nerabeei aholkuak posta elektronikoz, telefonoz, WhatsApp-eko bideo-deien bidez emango zaizkie, diskrezioa eta anonimotasuna bermatuz.

Zerbitzua hilabete bakoitzeko lehenengo eta hirugarren astearteetan eskainiko da; jaieguna bada, zerbitzua egutegira egokituko da.

688 815 071 telefonora deitu ahalko dute 15:30etik 18:30era, edo bestela argisex@txorierri.eus helbidera idatz dezakete.



T ANER MENTXAKA ALVAREZ

TXORIERRIKO BIZTANLEAK 2005-2025

Gehiago gara. Gazteak ere gehiago dira


Demagun txorierritarrak batu nahi ditugula herri bazkari batean, hobeto esanda, eskualdeko bazkari erraldoi batean. 22.229 aulki beharko ditugu horretarako. Adinaren arabera jesarriko ditugu mahaian, bakoitzak bere kintokoekin osatuko du taldea. 441 aulki beharko dituzte 1975. urtean jaioetakoek, eurena da talderik handiena. 2024an jaioetakoek 126 aulki (edo trona) beharko dituzte bakarrik. Nabarmen hazi da Txorierriko biztanleria azken hogeitertan, baina 2007tik erdira jeitsi dira jaioetzak. Herrien artean ere nabarmenak dira ezberdintasunak.


2005ean baino 3.707 txorierritar gehiago gara egun (ezinezkoa dugu Erandiogoikoako datu zehatzak lortzea, beraz, gainerako sei herrietan oinarritu gara ikerketa egiteko. Euskal Estatistika Erakundearen datu baseaz baliatu gara). Hogeitertan %20 handitu da biztanleria Txorierriin. Ez da gutxi. Bizkaia, bere osotasunean, %3 bakarrik handitu da eta. Baina igoera hau ez da berdina izan bailara guztian: Derio ia %50 handitu da eta Lezama %3 besterik ez. Larrabetzu %25 hazi da eta Zamudio, Sondika eta Loiu %10 inguru. Hiru txorierritarretik bat Derion bizi da egun.

Sondika eta Derio dira herri populatuena, bi udalerrri hauetan bizi dira gainerako lauretan baino lagun gehiago. Era berean, azalerarik txikiena dutenak dira. Beraz, dentsitate oso altua dute. 700 lagunetik gora bizi dira kilometro karratuko. Larrabetzun, ordea, 96 biztanle soilik.

Duela hogeitertan baino 2.436 biztanle gehiago dago Derion. Lezaman 61 gehiago bakarrik

Herri bakoitzak bere biztanleriaren bilakaera propioa bizi izan du azken bi hamarkadetan: batzuetan hirigintza-plan handiak eman dira, besteetan ia ez da eraiki etxe berririk. Baina bada herri guztiei antzera eragin dien faktorerik: 70eko hamarkadan jaioetakoak dira talde ugariak. Hau Bizkaia osoan ematen den fenomeno da. 1980tik aurrera hasten dira, urtero urtero, biztanleak gutxitzen. Eta 1995-1998 urteen bitarteko kintoen taldeak ez dira 200 lagunetara heltzen.





Boomerrak, *millennial*-ak... zein da zure belaunaldia?

Adituak saiatu dira gizartea belau-naldietan banatzen eta giza-talde hauen ezaugarri amankomunak antze-maten. Hala ere, egiten diren banakete-tan ez dago ia adostasunik eta sarritan estereotipo eta aurreiritziz osatutako des-kribapenak besterik ez dira.

Alfa belaunaldia (2010etik aurrera jaiotakoak). Gazteenen taldea da hau. Interneten erabilera guztiz hedatuta da-goela jaio dira, horregatik, natibo digita-lak direla esan ohi da. Mundu birtualak dakartzan aldaketa eta arazoaren lehen kaltetuak ere badira.

Z belaunaldia (1995-2009). Hauen ezaug-
garri garrantzitsuen teknologiarekin du-

ten harremana omen da. Sare sozialek eta mundu birtualak eskaintzen dieten komu-nikazio eredua lehenesten dute eta per-sona indibidualistak dira. *Zoomer* edota *centennial* bezala ere izendatzen dira.

Milurtekoak edo millennial-ak (1980-1994). Euren ikasketak hurrengo milur-tekoan, 2000 urtea eta gero, amaitu zituz-telako deitu zitzaizen millennial. Adituen arabera, konfiantza eta tolerantzia handiko belaunaldia dira, baina baita nartzisista ere.

X belaunaldia (1965-1979). X izendatze-aren zergatia da definitzeko zaila omen den belaunaldi bat dela. Gurean talde handiena dira, boomerrak baino gehia-go. Aldaketa politiko eta sozial handiko

garaietan jaiotakoak dira, frankismoaren azken aroan.

Baby boomerrak (1946-1964). Gerraos-tean eta frankismoaren lehen hamarkade-tan jaiotakoak dira. Bigarren Mundu Ge-rra amaitzean jaiotza tasak gora egin zuen mundu guztian, baina gurean gerraoste gogorrek gorakada atzeratu zuen zenbait hamarkadaz. Euren gaztaroa rockak eta pop kulturak zipriztindu zituen.

Belaunaldi isila (1928-1945): 1928tik eta 1945era bitartean jaiotakoak dira. Espai-niako Gerran umeak ziren edo gerraoste-ko lehen urteetan jaio ziren. Garai latzak bizi behar izan zituzten eta diktaduraren askatasun faltak baldintzatu zituen.



IN | SUKALDEAK
insukaldeak.com

BILBAO
T. 94 402 82 54

Lehendakari Aguirre 175-177.
48015 Bilbao

DERIO
T. 94 656 85 69

Txorierriko etorbidea 9. Ed. Arteaga.
48160 Derio



**NAHI
DUZUN
SUKALDEA**

25 urteko esperientziak bermatzen gaitu.
Doako finantzaketa.

Baina horren ondoren igoera dago berri, 2007. urtean ia 300 lagunetara helduz. 1998tik 2007ra doan hazkunde hau, ordea, ez da Bizkaian ematen. Lurralde historikoan, datuak egonkor mantentzen dira, igoera eta jaitsierarik gabe. 2008an hasten da ostera ere biztanleriaren beherakada eta 2024rako jaiotakoen kopurua erdira jaitsi da. Beherako joera hau oraindik ez da gelditu, eta datuei erreparatuta, hurrengo urteetan gehiago txikituko dela ematen du: bizkaitarrek, egun, 32 urterekin izan ohi dute lehen haurra. Hau da, 90ko hamarkadan jaiotakoak izaten ari dira orain guraso, eta hauek talde txikiak dira.

BAINA ZAHARKITU DA TXORIERRIKO BIZTANLERIA?

Kontrakoa badirudi ere, duela hogeitau baina adingabe gehiago dago. 18 urtetik beherakoak txorierritarren %15 ziren 2005ean, eta %17 dira orain. Hazkunde handia izan da Derion, Larrabetzun eta Zamudion. Loion, ordea, duela hogeitau baina gazte gutxiago dago.


Hirugarren adinekoen kopurua ere hazi da Txorierrin, %19tik %22ra. Gehien hazi dira Lezaman, Loion eta Zamudion. Larrabetzun kontrako joera eman da: duela 20 urte baino gutxiago dira 65 urtetik gorakoak.

Lezaman, adinekoak %16 ziren 2005ean, %24 dira orain


ETA KANPOTIK ETORRITAKOAK?

Bizkaitik kanpo jaio diren txorierritarren portzentaia duela hogeitau berdina da. Lautik bat bakarrik du jaioterria Bizkaitik kanpo. Zehatzago esanda: 2005ean %75,7 ziren Bizkaian jaiotakoak eta orain %74,2 dira. Baina nabarmen aldatu da etorritakoen jaioterria. 2005ean 3.800tik gora txorierritar Espainiako estatutik etorritakoak ziren, eta 664 lagunek munduko beste estatuetan zuten jaioterria. Egun espainiar jatorria dutenak 3.338 dira eta bestelako herrialdeetan jatorria dutenak 2.392. Hauek txorierritarren %3,6 ziren 2005ean, %10,8 dira gaur egun.

● Adingabeak, ● helduak (18-65 urtekoak) eta ● 65 urtetik gorakoak, herriz herri.




● Bizkaian jaioak, ● Espainiar Estatuan jaioak eta ● atzerrian jaioak



“Nire herrian, umeak baino txakur gehiago dago”

Seguru sarritan entzun duzula. Ematen du gero eta ume gutxiago dagoela gure herrietan eta txakurrak, aldiz, gero eta gehiago direla. Eta horrela da. Txorierri 5.000tik gora txakur dago eta 3.773 adin txikiko. Loium adibidez, 1.055 txakur omen daude eta 370 ume. Derio da herri bakarra non adingabeak gehiago dauden txakurrak baino.



Ekin eta ekin 38 urtez. Publikoa, irekia, guztiontzat.



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



XIV. Tostada lehiaketa

Otsailaren 12an, eguen zuriz

Txorierriko Baserri Antzokian

Izen-ematea: bertan, 10:00etan eta 18:00etan

Aurretik, tostada eta gazta tarta egiteko

ikastaro lasterra Sarai Leonardo
gure sukaldariaren eskutik

**ERDU ETA OSPATU GEUGAZ
EGUEN ZURIA!**



T MIKEL REINA BARROS

S ONDIKAKO INAUTERIAK

SONDIKAKO INAUTERIAK

Bilakaera etengabea

Inauteriak modu berezian ospatzen dituzte Sondikan. Aurten otsailaren 20an eta 21ean ospatuko dituzte, eta dagoeneko azken ukituekin daude. Bete-beteko egitaraua prestatzen ari dira inauteriak behar bezala ospatzeko.

Jone Karkamok esperientzia dauka alde horretatik, 20 urte betetzen ditu aurten elkartean. 18 urterekin hasi zen, eta herriko beste kuadrilla askoko sondikoztarrek bezala, erreleboa ematen jarraitu izan dute, urtero inauteriak antolatzen. Gaur egun 30 lagun baino gehiago daude antolakuntzan eta lan taldeetan banatuta egiten dute lan, “bestela ezinezkoa litzateke jaiak aurrera eramatea”.

Karkamok aitortu du Sondikako Inauteriak asko aldatu egin direla, “gizarte aldatu den heinean”. Lehen urteetan eguen eta barikuetan antolatzen zituzten Rock eta Heavy kontzertuak ekarri ditu gogora. Hasiera batean, Batzoki aurreko aparkalekuan hasi zituzten. Gero, tren geltoki azpiko aparkalekura lekualdatu ziren. Azken urteetan Iturrikosolo kaleko bidegurutzean kokatzen dituzte bi karpa. Txiki geratu zaizkie orain arteko espazio

“Lehen, gauean oinarritzen ziren jaiak, orain egun osokoan bilakatu dira”

guztiak. Egitarauan ere aldaketak eman direla nabarmendu du antolatzaileak. “Lehen, batez ere gauean oinarritzen ziren ekintzak eta jaiak, orain egun osoko inauterietan bilakatu dira, bai barikuan, baita zapatuan ere”.

Programazio zabala dute esku artean eta hori guztia antolatzeko irailean hasten dira elkarteko kideak eguenero bilerak egiten. Lehen helburua argi dute: kontzertuak erabaki. “Gure aurrekontuaren barruan, ahalik eta kontzerturik erakargarrienak ekartzen saiatzen gara,

batez ere barikurako. Zapatuan badakigu beti etortzen dela jende asko, gehiegi eta guzti batzuetan”.

Egitarau askotan bezala, lege bat daukate: ondo funtzionatzen duena, hobe ez ukitu. Karkamok gogoratu du Sondikako eskolako guraso elkarteak hasi zirela 1980a baino lehen inauteriak antolatzen. Horregatik, eskolatik abiatzen den bariku arratsaldeko kalejirari garrantzia ematen diote, Sardinak eta buruhandiek parte hartzen dute bertan. Iaz bezala, aurten ere, eskolako umeek aukeratu dute inauterietako gaia: marrazki bizidunak. “Eskolatik bi gai proposatu ziren eta elkartetik beste bi. Gero, bozketa egin da gaia hautatzeko. Horrenbestez, txosnak marrazki bizidunen inguruan apainduko ditugu”. Hain zuzen ere, helburu dute adin eta gustu guztientzako ekimenak antolatzeko.



Bilgune nagusietako bat, duela hiru urte lehen aldiz antolatu zutenetik, herri bazkaria da. Hasieran “ezjakintasun apur batekin” hasi bazuten ere, gaur egun 300 lagun inguru elkartzen dira. Tiketak otsailaren 8ra arte daude salgai Amets, Egarri eta Miren eta Juanxu tabernetan. Umeen eta helduentzako menuak daude, 15 eta 30 eurotan, hurrenez hurren.

KONPONBIDE BILA

Iaz, Sondikako inauteriak albiste izan ziren, baina antolatzailleek nahi izan ez zuten aldetik. Barikuan lau eraso matxista salatu ziren eta zapatuan labainkadak eta borrokak izan ziren herriko kaleetan. Sondikako Inauterien elkartetik eta udaketik elkarretaratzea eta adierazpen ofiziala osatu zituzten erasoak gaitzesteko.

Horregatik, elkartetik konponbidea bilatzen dabilta, “erabateko konponbidea aurkitzea erraza ez bada ere”. Esa-

Egitarau osoa aldizkariko agendan ikus dezakezu, 38. orrialdean

te baterako, mahai gainean jarri duten proposamenetako bat izan da zapatuan ere trenak bere ohiko ordutegia izatea. “Orain arte trenak ordutegi berezia izan du zapatuetan, ordu erdiro izan dira joan-etorriak, eta horrek aukera ematen die batzuei Sondikara etorri erasoak osatu eta alde egin ahal izateko”, uste dute. Udaletxearekin ere bilerak osatu dituzte “denontzako jai seguruak” antolatzeko helburuarekin. Aurten ere Puntu Morea jarriko dute txosnagunean.

Beste ideietako bat da zapatuko DJa kentzea eta musika ere lehenago ken-


tzea, “gaueko ordu txikietan ematen direlako batez ere erasoak”. Azken urteetan bai nabaritu dute gero eta gazte gehiago datozela Sondikako Inauterietara, ez bakarrik Txorierritik, inguruko beste herri askotatik ere. “Hainbeste jenderekin zaila da guztia kontrolatzea, pertsona gutxi batzuk nahikoak dira jarrera desgokiak izateko”. Gainera, jai giroa bera ere aldatu egin dela diote. “Lehen ere bazegoen ‘litroak’ egiten zituzten gazteak, baina txosnagunetik kanpo kokatzen ziren, inguruko plaza eta kaleetan. Gaur egun txosna alboan dituzu eta askotan lanean gaudenoi traba eta guzti egiten digute”.

Ez dute iazko “zapora gazi-gozaorekin” berriro geratu nahi. “Hilabete askotako lan ikaragarria dago Sondikako Inauterien atzetik, eta azkenean ez dugu gustuko zapora horrekin geratzea, askoz gehiago dagoelako onetik txarretik baino”. ●

Ale-apaindegia
M^a Antonia Llodio TXORI
Txorierriko etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ZAMUDIO
Loteria Nazionala
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
loterias.zamudio@gmail.com

sarraila-denda
Txorierri
ADITUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN
Alain Pomposo Zarate 605 100 800
info@cerrajeriatxorierri.com
www.cerrajeriatxorierri.com



LARRABETZUKO BASOAK

Pinua zegoen lekuan, eukaliptoak

lazko uztailleko aldizkarian Eduardo Martin Azaolak Txorierriko bero-uharteen mapa aurkeztu zigun. Sarean aurki daitezkeen datuetan oinarrituta, mapak egiten ditu lezamarrak. Eta orain-goan Larrabetzuko basoen ingurukoa aurkeztu digu. Zein da gaur egungo baso eta landaketen banaketa? Zenbat da eukaliptoak? Zenbat koniferoak? 2005eko datuekin alderatu ditugu, egondako bilakaera azaleratzeko.

Txorierri azalera handiena duen herria da Larrabetzu. Biztanle gutxien duena ere bada. Beraz, lur eremu handia du belardi, baso eta landaketei eskainia. Martinek zuhaitzei eskainitako espazioa nabarmendu du mapan, eta hiru multzotan banatu ditu: koniferoena (laranjaz), eukaliptoena (urdinez) eta hostozabalena (berdez).

Basoek, gaur egun, udalerriaren azaleraren bi heren hartzen dituzte. Beste herena dira soloak, zelaia eta hiritartutako


Eukaliptoaren azalera ia seikoitu da 20 urtetan Larrabetzun

lur eremuak. 2005ean ere antzeko hedadura zuten zuhaitz eremuak. Lehenik eta behin, basoen eta zuhaitz landaketen artean egin behar dugu diferentzia. Basoak

zuhaitz espezie ezberdinez osatutako ekosistemak dira, non izaki bizidunen arteko oreka bat ematen den. Zuhaitz landaketak, ordea, espezie bakar batez osatutako espazioak dira, gainerako landare eta animalien existentzia zaila edo ezinezkoa eginez.

Hostozabalen kategorian ditugu hari-tzak, lizarrak eta bertakoak diren zuhaitz espezieak, era naturalean jaiotakoak edo gizakiek landatutakoak. Espazio hauek soilik dira baso ekosistema, animalia eta

Larrabetzuko lurren erabilera, 2005eko eta 2024ko datuak, hektareatan



landareen babesleku. Gaur egun Larrabetzuko azaleraren %13 soilik da basoa. Duela 20 urte %11 zen.

Koniferoen taldean daude pinuak eta izeiak. Bi pinu espezie landatzen dira bereziki: intsinis pinua eta itsaso pinua. Larrabetzuren herena dago koniferoz landatuta, ia 700 hektarea, baina

2005ean udalerriaren erdia, 1.100 hektarea, pinudia zen.

Eukaliptoen artean ere bi espezie izan dira landatuenak: nitens eta globulus. Hauen gorakada izugarria izan da 20 urtetan, 72 hektarea ziren 2004an, gaur egun ia 400 hektarea dira.

Esan bezala, baso edo landaketa aza-

lera berdintsua mantendu da 20 urte hauetan eta bertako zuhaitz espezieek ia ez dute lortu lur gehiago konkistatzea. Baina basogintzak, apurka apurka, pinua eukaliptoagatik ordezkatu du. 2005ean, eukalipto hektarea bakoitzeko 15 hektarea pinudi zeuden, eta gaur egun ez da bi hektareatar heltzen. ●



step

IZEN EMATEA ZABALIK

- 12 urtetatik aurrera hizkuntza ikastaroak atzerrian
- Tarazona-Zaragoza 100% ingeles udalekuak
- AEB, Irlanda eta Kanadan ikasturtea edo murgiltze programak. 4 astetik ikasturte osorako iraunaldiak

Kontaktua:

www.steptravel.net

step@steptravel.net

94 416 13 88

ZOZKETAK

Aikorren komunitatearen parte izateak saria du. Hilero hainbat sarrera eta opari zozkatuko ditugu gure irakurleen artean. Argibide gehiago: aikor.eus/zozetak




Hontza Museorako sarrerak

Hilero Hontza Museorako sarrera bikoitza!

Ez galdu aukera Bizkaiko Natur Zientzien Museo ofizial bakarra ezagutzeko.

Zozketan izena emateko azken eguna: **otsailak 15**

Aurreko hileko irabazlea:
Mari Carmen Alvarez Palencia



JumpYarderako sarrerak

Hilero hilero JumpYarderako sarrera bikoitza!

Zozketan izena emateko azken eguna: **otsailak 15**

Aurreko hileko irabazlea:
Uzuri García Martínez


10 lagunentzako urtebetze ospakizunaren irabazlea:
Irati Abona Arraeta



Hazim Hikmet

XX. mendeko turkiar poeta ezagunaren bilduma, Gotzon Barandiaranek euskaratua.

Zozketan izena emateko azken eguna: **otsailak 15**



Galbahe diskoa

Gotzon Barandiaranen izen bereko poema liburuan oinarritutako diskoa.

Zozketan izena emateko azken eguna: **otsailak 15**



Eguneko menua bi pertsonarentzat BASERRI ANTZOKIAN

Hilero bi lagunentzako menua zozkatuko dugu zuzenean gure aikorlagunen artean. Ez da beharrezkoa izena ematea.

Aurreko hileko irabazlea: **Virginia Ibarrondo Soba**



TXERRA RODRIGUEZ
Hizkuntza aholkularia
blogak/argia.eus/txerra-rodriguez

FREEPIK

MIHIGINTZA ATAL BERRIA

Hizkuntza, pentsatzen dugunetik amesten dugunera arte

Soziolinguistika. Berba potoloa, entzuten dugunean atzera eragiten diguna. Baina, zoritxarrez edo zorionez, berba horren atzean dagoenak gure bizitzan eragiten du, momentu guztietan gainera, guk gura ala ez. Horrexegatik, ahalegindu beharko ginateke zientzia adar horrek ematen dizkigun baliabideak ezagutzen, batez ere egoera minorizatuan dagoen hizkuntza delako gurea.

Soziolinguistika. Zer da ba? Ba, hizkuntzen eta gizartearen harremana aztertzen du, hori baino ez. Edo hori guztia, esnatzen garenetik ohera joan arte (ametsetan ere bai) hizkuntzak gurekin harremanetan baitaude, hasi pentsamenduetatik eta amaitu edozein iragarrietan. Baina, kontuz, soziolinguistikak ez ditu prozesu indibidualak aztertzen, kolektiboak baizik: hizkuntza ohiturak, hizkuntza eskubideak, konplexuak, gatazkak, portaerak, diskriminazioak, ... Eta hori guztia aztertu eta lantzeko erpin asko ditu soziolinguistikak, psikologia (batez ere, soziala), antropologia, soziologia, zuzenbidea, ekonomia, komunikazioa, politika, ... Hizkuntzen praktika sozialen inguruko jakintza zientifikoa delako soziolinguistika, ezer izatekotan.

Eta soziolinguistika, kontrara eman dezakeen arren, ez da linguistika. Ez du aztertzen hizkuntzaren sintaxia, edo

gramatika, edo joskera, edo morfologia. Horiek filologoentzat. Soziolinguistikak hizkuntzaren alderdi sozialei egiten die jaramon. Eta, horren barruan, bi plangintza bihurtu ziren kanon diziplina sortu berritan: corpus plangintza (gure kasuan, larreko hizkuntza noranahikoa bihurtzeko lana, estandarizazioa, euskara batua eta hari lotutakoak) eta estatus plangintza (hiztunei eta haren inguruarbarrei dagokiena). 70 urte pasa dira ordutik eta estatus plangintza biderkatu zaigu: jabetze plangintza (euskara ikasi eta irakasteko metodologiak, plangintzak eta abar), prestigio plangintza, identitate plangintza, komunitate plangintza, ...

Plangintzak, plangintzak eta plangintzak. Dena zientifikoa, dena zenbakietara ekarria, dena aldagai, dena ... Errealitatea, baina, batzuetan bestelakoa izaten da eta dena ez dago hain "planifikatua". Adibidez, euskara batua sortzeko prozesuan zenbateko planifikazioa egon zen? Edo 60ko hamarkadan hasi zen pizkundean? Edo gau-eskola eta euskaltegien sorreran?

Baina jarraitzen dugu metafora hori erabiltzen (bai, irakurle, plangintza metafora bat da). Nire ustez, metafora hauek oso produktibistak dira, enpresarialak oso (joera orokorrekarekin bat datoz, orain sentimenduak kudeatu behar ditugun honetan). Eta ostentzen dute hizkuntzen

dinamiketan eragin handia duten praktika afektibo asko, baina ...

Bi plangintza nagusi horietara itzulita, corpus plangintzak hizkuntza egoera berrietara egokitzea dakar eta nahitaezkoa da, baina ez nahikoa. Estatus plangintza izan behar da lehentasunezko. Azken finean, hiztunon normalizaziorako alderdi linguistikoak bigarren mailakoak dira. Beharrezkoak, baina bigarren mailakoak. Eta, horregatik, ez dago ulertzerik herri santu honetan goi mailako jakintza akademikorik ez egotea. Ez dago ulertzerik goi mailako ikerketa eta dibulgaziorik ez egotea (salbuespenak albuespen eta ia beti herrigintzatik elikatuta).

Kontuz! Baina ezin dugu ulertu soziolinguistika lurretik bi zentimetro gorago dabilenen zientzia modura. Interbenzio eta eraldatze zientzia modura ulertu beharko genuke eta, ahal dela, behetik gorako zientzia modura, egunerokoan gertatzen zaizkigunak hobeto ulertu eta horiek aldatzeko zientzia modura.

Beraz, ahal den heinean, jakintza herritarrari heldu beharko diogu eta eskertu Soziolinguistika Klusterrari eta Udako Euskal Unibertsitateari urteetan egindako lana. Eta jarraitu jakite hau dibulгатzen, ditugun baliabidetxoekin. Horretarako, aukera izango dugu hurrengo hilabeteetan Aikorreko orrialdeetan. ●



HARATEGIA
ALBERTO
Arbolantxa, 4
Tel.: 944 520 825
48170 ZAMUDIO



SQUAT
TRAINING CENTER
ENTRENAMENTS PERTSONALA • LESIOAK • OPOSIZIOAK
ONLINEKO JARRAIPENA • KIROL ERRENDIMENDUA
Urkiola 4, Derio • squattrainingcenter.es • 686 917 409



OAKLAND
ENGLISH
L. LEIZAOLA PLAZA, 2 • ZAMUDIO
946 522 857



NAGORE LOPATEGI ESCALLADA
Komunitatearen eraldaketarako teknikaria

EMAUS Grafitia elkargune bezala

Badirudi denak bereizten gaituen garai honetan — adinak, auzoak, etiketak, beldurrak —, batzuetan horma bat nahikoa izaten da berriro topo egiteko. Horma zuri bat, besterik ez. Eta esku gazte urduri batzuk pinturaz eta bizitzaz zikintzeko prest.

Horrela sortu zen Emaus Gizarte Fundazioak eta Txorierriko Mankomunitateak bultzatutako kultura komunitarioko proiektu hau. Nomada Jaialdiaren eta GazteEkin-en esparruan, aspalditik lurraldean sareak eta konplizitateak ehuntzen ari dira eta. Proiektu hori ez zen zirriborroekin edo spraeekin hasi, pertsonekin baizik. Sondikako, Lezamako, Zamudioko eta Txorierriko beste herri batzuetako gazte talde batekin, hiri artearen aldeko apustua egiten dutenak, adierazpide, entretenimendu eta parte-hartze sozial gisa, eta gizarte-bazterketa egoeran eta Emauseko gizarte programei lotuta dauden pertsonekin, egunero eutsi, sortu eta amesten baitute.

Hainbat saiotan, ibilbideak, ametsak, errealtate konplexuak eta eguneroko garaipen txikiak aurkitu eta partekatu

zituzten. Benetan balio duenaz eta arrerantz bultzatzen duenaz hitz egin zuten. Auzokoa, etorkizunekoa, duintasuneko. Artea. Kalea. Kolore batek nola esan dezakeen hitzek batzuetan lortzen ez dutena. Grafitia, askotan kriminalizatua, zaintzarako, topaketarako eta besarkadarako aukera ere izan daiteke.

Prozesu horretan, gazteak ez ziren parte hartzaileak bakarrik izan, ekintzaileak izan ziren. Izan ere, Emausen uste dugu gazteak proiektu artistiko komunitarioetan inplikatzeko herritartasun aktibo, kritiko eta konprometituen aldeko apustua egitea dela. Bizi diren eta eraiki nahi duten munduari buruz esateko asko dutela onartzea da. Espazioa, konfiantza eta tresnak ematen zaizkienean, artea kanal indartsua bihurtzen da begiradak eraldatzeko, estereotipoak apurtzeko eta loturak sortzeko.

Bide kolektibo horretatik sortu zen diseinu artistiko partekatua, horizontaltasunetik eta errespetutik eraikia. Inor ez zen etorri inori erakustera. Pertsona guztiek ekarri zuten zerbait: esperientzia, intuizioa, memoria, go-

goa. Eta elkarrekin obra bihurtu zuten, gaur egun Derioko Emauseko eguneko zentroan ikusi daitekeena, Butroi kaleko 5. zenbakian. Mural horrek, espazio bat apaintzeaz gain, istorio komun bat kontatzen du. Nahasketa, lankidetzak, komunitate istorio bat.

Horregatik, proiektu hau pieza artistiko bat baino askoz gehiago da. Adierazpen bat da: kultura ez da gutxi batzuen artea ez du ulertzen ez oztoporik ez aurreiritzirik. Gazteak kolektiboki inplika daitezkeen guneak sortzen direnean, lehen distantzia baino ez zegoen lekue-tan, zubiak agertzen dira. Belaunaldien arteko zubiak, errealtate sozial desberdinen arteko zubiak, adierazteko eta parte izateko eskubideari eusten dioten zubiak.

Txorierriin, graffiti batek ozen eta argi hitz egiten du, eta gogorarazten digu kultura komunitarioa ez dela programatzen, bizi egiten dela. Artea gizartearen eraldatzeko benetako tresna izan daitekeela eta gazteak inplikatzeko ez dela aukera bat, behar bat baizik, haien eskuetan — pinturaz zikinduta — lurraldearen etorkizuna ere marrazten delako. ●

ELORRIETA
INSTALACIONES ELÉCTRICAS

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIOAK, MANTENTZE-LANAK,
KONPONKETAK...
MATERIAL ELEKTRIKOA SALGAI

info@elorrietainstalaciones.com 639 582 547
Uribe kalea 12 behea · Derio 944 540 386

PATXI
OSTALARITZARAKO ZERBITZU INTEGRALA

40 URTE ZUGANDIK GERTU

www.patxi.coop.eus

f t i n

Neiber Poligonoa / Etxezarre 4, 48170 / Zamudio / 944 522 587 / info@patxi.coop.eus

aldekone
hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

—Especialitatea guztiak
zentro bakar batean
—Aurrekontua doan

—Especialitatea:
umeak

Uribe 7, beheak
48160 DERIO (Bizkaia)



PATRICIA BARRON SAN BLAS
EHUko irakaslea eta ikertzailea
gizarte zientzietan



ARRAKALA DIGITALA

Algoritmoak eta demokraziaren ahultzea: ikusezinaren boterea

Demokrazia modernoaren oinarrietako bat eztabaida publiko informatu eta pluralista da. Hala ere, azken urteotan, espazio publiko hori gero eta gehiago bitartekaritza teknologikoaren menpe geratu da, eta, testuinguru horretan, algoritmoek funtsezko eginkizuna hartu dute. Sarritan neutraltzat aurkezten badira ere, argi da sistema horiek ez direla soilik informazioa antolatze-ko tresnak, baizik eta iritzi publikoaren konfigurazioan eragin zuzena duten mekanismoak.

Lehenik eta behin, azpimarratzekoa da algoritmoen funtzionamendu-logika ez dagoela demokraziaren balioetan oinarrituta, baizik eta arreta ekonomian. Plataformen helburua erabiltzaileen interakzioa maximizatzea denez, eduki emozionalak biziak lehenesten dira. Hain zuzen ere, 2021ean ezagutarazitako Facebooken barne azterketek erakutsi zuten haserre edo beldurra eragiten duten mezuak %20 eta %40 artean gehiago zabaltzen direla. Ondorioz, diskurtso sinplistik, polarizatzaileak edo tentsioa sustatzen dutenak erra-

zago hedatzen dira, eztabaida arrazional eta konplexuen kaltetan.

Bigarrenik, fenomeno horrek zuzenean eragiten dio demokraziaren funtsezko baldintza bati: informazio partekatuari. Europar Batasuneko FRA agentziaren arabera, 2015etik 2023ra gorroto diskurtsoen presentzia bikoiztu egin da sare sozial nagusietan. Datu hori ez da hutsala, izan ere, diskurtso horien normalizazioak gutxiengoaren kontrako narratibak legitimatu ditu, eta horrek herriarren arteko konfiantza soziala ahuldu du; konfiantzarik gabe, ordea, ez dago demokrazia funtzionalik.

Horrez gain, algoritmoek sortzen dituzten oihartzun-ganberak eztabaida publikoa zatitzen dute. Erabiltzaileek beren aurreiritziekin bat datozen edukiak soilik jasotzen dituztenean, errealitate partekatuaren ideia lausotu egiten da. Horrela, demokraziak behar duen desadostasuna ez da eztabaida aberasgarri bihurtzen, baizik eta elkar entzun gabeko monologo paraleloen multzoa. Testuinguru horretan, ez da harritzekoa azken urteotan

Europar diskurtso erradikalek ikusgarritasun handiagoa lortu izana, eta, aldi berean, instituzio demokratikoekiko konfiantza indizeak behera egitea.

Hala ere, ezin da algoritmoen eragina determinismo teknologiko gisa ulertu. Sistema horiek giza erabakien emaitza dira, eta, beraz, erabaki horiek eztabaida publikoaren menpe egon beharko lukete. Arazo nagusietako bat gardentasun eza da: plataformen funtzionamendua sekretu komertzial gisa babesten da, nahiz eta haien eragina zuzenean lotuta egon demokraziaren kalitatearekin. Digital Services Act bezalako araudiek norabide egokia markatzen duten arren, oraindik urrun gaude kontrol demokratiko eraginkor batetik.

Ondorioz, informazioa nondik eta zergatik jasotzen dugun baldintzatzen den heinean, erabaki kolektiboak hartzeko modua ere baldintzatzen da. Horregatik, ezinbestekoa da alfabetatze digital kritikoa indartzea, gardentasun handiagoa exijitzea eta espazio publiko digitala demokraziaren logikara hurbiltzea. ●

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kiroprasiak

clínica dental ZAINDUZ hartz klinika

Txaneri etorbidea, 9 - Lortze | Asteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezinduz.com | www.dentalezinduz.com

LEIRE BEGOÑA

ULE-APAINDEGIA

MUNCIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai jarraun Facebook-en

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denominazio Jaurerria

Bizkaiko Txakolina

Goititza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46



1 Barrikako leiho erromanikoa



2 Barrikako flysch



WIKIMEDIA / JOSEBA RIOS-GARAIZAR

3 Aranbaltzako makila

IÑAKI OLABARRIETA
JOSE ANGEL MENTXAKA**MENDITIK PATXADAZ****Barrika, Plentzia eta Gorliz.
Natura eta historia**

Udan gainezka dauden hiru herri hauetatik egingo dugu ibilaldia oraingoan. Oinez goazela, itsasoa beti begi bistan, natura eta paisaiaz gozatzen dugun bitartean, konturatuko gara historia beteaz daudela hiru herri hauek. Merezi du 9 km hauek patxadaz egitea.

Barrikako elizako leiho erromaniko txukuna bisitatu dugu lehendabizi. Bizkaian oso arte erromaniko gutxi dago eta hauxe da horietako bat. Ondoren, aparkaleku handitik oinez hasi eta Barrikako hondartzara jaitsi gara. Bertako flysch-a ikusgarria da, bereziki marea behean. Hainbat figuratuko haitzak aurkituko ditugu labarretako hormetan zein hondartzako areatik itsasoratzen, benetan ederra. Lehen jaitsitako 287 eskilarak igo ostean, arnasa hartu bitartean, panelean gelditu gara.

Bertan, Kurtzioko tailer paleolitikoaren berri ematen da. Gaur egun, gezurra dirudien arren, hementxe bertan gizakia historiaurretik ibili izan da, beraien tresnak egiteko asmotan. Kontuan hartu behar da silexa inguruko harri arrunta dela eta Berangotik Sopelara hainbat indusketa egin direla: Agirremendi, Mendieta, Urtxubi, Ollagorta, Goierri, Aranbaltza, eta ia hemen bertan, Kurtzio. Indusketetatik milaka silex tresna atera dira. Aipamen berezia merezi du 2015. urtean, hemendik gertu aurkitutako Aranbaltzako makilak.

Hagina-egurrez egindakoa da, 100.000 urte inguru dituela kalkulatzen da eta Neandertalek landu ei zuten lurra zulatzeke. Gure ibilbidean ez ditugu aurkituko tresna guzti hauek, jakina, beraiek ikusteko museoetara jo beharko genuke, Bizkaiko Arkeologia Museora edo Plentziako museora.

Aurrera egin dugu iparralderantz, GRaren marra gorri-zuriak jarraituz. Itsaso ertz-ertzetik doa bidezidorra, paisaia ezin ederragotik. Lur muturrari bira eman eta Muriola hondartza politera jaitsi gara. Aurrez aurre, Gorlizko lur muturrean, flysch beltza eta kare-flyscharen trantsizioa ikusi daiteke. Aurrera eginez Butroe ibaiaren bokalera heldu gara, ezkerrean ibaia eta eskuinean berreskuratutako Txipioko Padura, errepidearen beste aldeko paneletan ondo azaltzen denez.

Oinezkoen zubian gelditu, eta txalupen bista lasaiaz gozatu bitartean, begiak itxi eta mende batzuk atzera egin dugu, Erdi Aroko Plentzia, Plazentzia orduan, hiribildu harresitua dugu aurrean, eta ur bazterrean, ontziolak. Atzerago joanez,

erromatarrak ikusi ditugu bokalean, bertan aurkitutako zenbait txanponak horren lekuko dira.

Zubia gurutzatu eta eskuinaldean marea-errotari bisitatu dugu, itsasoaren urak aprobetxatuz zebilena. Pasealekutik jarraitu beharrean, eskailera igo eta Barrenkale eta Artekale atzean utziz, Goienkaletik jarraituz, antzinako jauregi batean museoa dago. Bertan, gehien bat, Plentziak itsasoarekin izan duen lotura erakusten da, aipatutako txanponak eta zenbait silexeko tresnekin batera. Plaza-joan eta eliza ondoko arkupetik pasatu gara, zegoen harresitik geratzen den ia aztarna bakarretik. Portura jaitsi gara.

Hondartza eder parera heldu, eskuinean egin eta Gorliz herriko elizaraino joan gara. Bertan aipatzeko dira eguzki-erloju bi, bata elizan eta bestea inguruko etxe baten aurrean dagoena. Ondoko base-rrian, Larraganen, eguzki itxurako estela ederra aurkitu zen, Bizkaiko Museo Arkeologikoan ikusgai dagoena. Ama-
tutzat eman dugu gaurko ibilaldia. ●



4 Erdi Aroko atea



5 Eguzki-erlojua




6 Larraganena hilarria

Ibilbidea

Distantzia: 9 km

Desnibel positiboa: 188 m

Eskuratu
hemen
ibilbidearen
track-a



AmAr
ileapaindegia
Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30
Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
944 520 419





WIKIMEDIA / JI'ELLE

ESTITXU PÉREZ CASTRO
 @txiribita_mundi

HERBARIOA

Aingeru-belar landatua

Angelica archangelica. Bi urterik behin ateratzen den landare usaintsua da, oso lore ederrak ditu eta 2 metrotara hazi daiteke. Nahiago ditu lur hezeak, freskoak eta ilunak. Europa iparraldekoa da jatorriz, eta erabilera ugari ditu; horregatik, bestelako izenak ere baditu, hala nola, aingeruen belarra, bizitza luzeko sustraia...

ILKETA

Landare osoko uzta jaso daiteke, hazietatik hasi eta sustraietaraino (propietate gehien dituen da).

Zurtoin samurrak eta hostoak urtebeteko landareetan biltzen dira, udan ematen den loraketaren aurretik.

Landareak bi urte dituenean, haziak biltzen zaizkio, onduta eta askatzear daudenean. Ondoren, loreak moztu eta paper edo trapu baten gainean astintzen dira, horrela, haziak erraz eroriko dira. Hala ez bada, jarri itzaleko leku batean, aireztatua eta lehorra, landarea guztiz lehortu arte.

Sustraiak udazkenean biltzen dira, landareak 3-4 urte dituenean. Biltzen den urtean, loreak ireki baino lehen, sustraiak moztu behar dira, eta udazkenean sustraiak bildu behar dira. Ondo garbitu behar dira, luzetara 2-4 zatitan moztzen dira eta eguzkitan lehortzen jartzen dira gorde aurretik.

SUKALDARITZAKO ERABILERAK

Toki batzuetan zurtoinak eta hosto samurrak barazki bezala jaten dituzte. Lore-ki-muak egosita janaurreko goxoa dira. Hori bai, lorea oraindik zorrotik atera ez denean bildu behar da.

Sendagarria denez, landarea asko erabiltzen da, berez, digestio likoreak direnak prestatzeko (Benedictine, Chartreuse edo Karmengo ura, besteak beste).

Digestio likorea eta janaurrea

Errezeta erraza da eta oso eraginkorra digestio arazoetarako.

Osagaiak: 50gr aingeru-zurtoin berde, txikituta; 1'5gr intxaur muskatu; 1'5gr kanela; kilo bat azukre; litro erdi pattar eta litro erdi ur.

Elaborazioa: jarri mazeratzen aingerua, intxaur muskatua eta kanela pattarrean. Utzi, gutxienez, 4 egunez bertan, eta gero, gehitu urarekin eta azukrearekin egindako ziropea. Beste 8 egunez mazeratzen utzi.

Ondoren, ondo itxitako botiletan iragazi, eta botilaratu leku fresko eta ilun batean.

Aingeru ardoa: 60g hazi edo txikitutako sustraiak mazeratu, 8g kanela eta 4g intxaur eho 2 litro ardo beltzean. Mazeratzen utzi, gutxienez, 4 egun, eta gehienez, 10 egun. Astindu egunero eta 10 egunen ondoren, iragazi eta botilaratu. Edalontzi bat hartu jan aurretik edo ostean, digestibo gisa.

EZAUGARRI MEDIZINALAK

Hainbat propietate ditu: tonikoa, digestiboa, gosegarria, espektoratzailea, izerdiazalea, lasaigarria, garbigarria eta diuretikoa, besteak beste.

Espektoratzailea eta bekikoa da, defentsa naturalak estimulatzen ditu eta ahul sentitzen zarenerako egokia da.

Hilekoaren minak, goragaleak, sabeleko tentsioa, migrainak eta jatorrizko jakekak arintzen ditu.

Aingeruaren gauzarik nabarmenena da gosearen estimulatzaila dela eta digestioa arintzen laguntzen duela. Otorduen ostean infusio bat hartzea gomen datzen da.

Infusioa

Litro laurden uretan, gehitu sustrai lehor edo hazien koilarakada erdi bat, edo hosto lerroen edo zurtoinen koilarakada bat. Irakin 3-4 minutuz, eta gero jalki 10 minutuz.

ORTUAN

Bere lore handiak nektarrez eta polenez beteta daude. Horrenbestez, erleak, erlas-tarrak eta beste batzuk erakartzen ditu. Landatzea nahiko erraza da, leku fresko eta ilun bat aukeratu behar da hezetasun iraunkorra mantentzeko. Landare-hondarren konposta gustatzen zaio, biguin-garri on batek hezetasuna mantentzen eta arrotzak uxatzen lagunduko du.

KONTRAINDIKAZIOAK

Aingerua zuhurtziaz hartu behar da, gaindosi bat kaltegarria izan daiteke. ●


Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurritz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezten; ez moztu loreen %20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, papezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak...





GURENA

ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK



Babespeko apartamentuak

ZURE NEURRIRA

LOIU
Unbe txiki bidea 9
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049

www.gurena.com



SUKALDARITZA

Pilar Muñoz Pazen errezeta · [@pilarmunoz4164](#)

Sagar tarta



OSAGAIK:

Ore hautsia (aukeran hostorea):

250 gr irin
125 gr gurin
L arrautza 1
50 gr azukre (glass hobeia)
Gatz pixka bat

Pastel krema:

Esne osoko litro bat
6 gorringo
150 gr azukre
Maizenazko 3 zopa-koilarakada
Banilla esentzia txorrotada bat
50 gr gurin

PRESTATZEKO ERA:

Gehitu gurina irinari pixkanaka area sortu arte. Ondoren, gehitu azukrea, gatz eta arrautza, oratu masa bat lortu arte, ez gehiegi oratzearekin gurina ez berotzeko.

Egin masa bat, eta utzi filmatuta hozka-iluan gutxienez ordubete masa gogortzeko. Bestela, gurina bigundu egiten da eta ezin da ondo manipulatu.

Luzatu masa labeko bi paperen artean, erabiliko den moldearen diametroa lortu arte (masa soberan egongo da, baina izoztu daiteke). Fin utzi behar da, dena batera labeen sartzeko.

Pastel krema egiteko: krema berotzen jarri gabe, nahastu hagaxkarekin kazolan gorringoak, azukrea eta maizena, gehitu

esne pixka bat hobeto diluitzeko eta, ondoren, bota gainerako esnea eta banilla txorrotada. Gero, jarri kazolan berotzen, hagaxkarekin gelditu barik irabiatuz, loditu arte, bestela itsatsi daiteke.

Krema berotan bota, alde zurreratik gurinez igurtzita eta masa hautsia zabaldu ta dugun moldean. Ondoren, apaintzeko moztutako sagar xafak jarri eta labeen sartu ordubetez, sagarra ertzetatik pixka bat erretzen hasi arte eta ore hautsia urre kolorekoa denean.

Albortxiko marmelada pote bat lapiko batean jarri, berotu eta iragazki bate-tik pasatu albortxiko zatiak edo larruak kentzeko.



DENBORA-PASAK

Lagundu Bizkorri bere afaria topatzen.



SUDOKU ERRAZA

4		9	2	7				
			4				3	
	1	6		8				7
			6		9		2	
8		4	5		1	7	6	3
2	6	5	7		8	4		9
1				6				
	4	2				3	8	
			8			1		4

SUDOKU ZAILA

	3	1			2			8
6				8				
							3	1
7	5						6	9
	9			1			2	
		8		3	6			
9					5			
	7		2					
1			6			4		

OTSAILEKO AGENDA

1, domeka**Kanpomartxo LARRABETZU****8, domeka****11:00 Neska eta emakume zientzia-larien egunaren inguruko tailerrak**
DERIO Kantxa estalietan.**18:00 Kontukantari 2. Mendian Ibiltari**
LARRABETZU antzezlan. Frontoian**10, martitzena****17:00 Sexuen heziketa: ongizaterako giltzarria** **LEZAMA** Familientzako hitzaldia. Kultur Aretoan**10etik 24ra****Sagardotegirako irteeran izena emateko epea** **SONDIKA** Jubilatuen etxea**12, 19 eta 26an****18:30 Zure ahotsa, zure boterea.** Emakumeentzako komunikazio- eta adierazpen-tailerra. **LEZAMA** Kultur Aretoan**13, barikua****Maskarita Eguna LARRABETZU****14, zapatua****Zuberoako maskarada ikustera irteera**
Pagolara LARRABETZU**11:00 Lezamako ihauteriak** **LEZAMA****15, domeka****19:00 Escape room antzezlan** **SONDIKA****19, eguena****19:00 Aizkorak eta gutunak liburuaren aurkezpena.** Edorta Jimenezen eskutik
LARRABETZU Ludoteka gaineko gelan**20, barikua****19:00 Egonaldia egin duen Olatz Ovejeroren film laburraren emanaldia**
LARRABETZU Ludoteka gainean**21, zapatua****Garratza booking kontzertua**
LARRABETZU Hori Bain**26, eguena****16:15 Umeentzako irakurketa saioak**
LARRABETZU Angulerin**27, barikua****Udalaren irudi berriaren aurkezpen ekitaldia** **SONDIKA****28, zapatua****Euskal Herriko Putxera Txapelketa** **LOIU**

LEZAMAKO INAUTERIAK

14, zapatua**11:00-13:00 Umeentzako puzgarriak eta tailerrak****12:30 Kuadrillen aurkezpena** plazan**13:00 Josepa kale kale****18:00 Mozorroren desfilea** frontoian
Albina Stardust & Divina Comedia**19:30 Kalejira herritik**
(Kalean txaranga)

DERIOKO INAUTERIAK

13, barikua**18:00 Diskofesta eta txokolatada**
kantxa estalietan**14, zapatua****18:00 Jaitsiera** elizatik**19:00 Mozorro lehiaketa eta kale animazioa****15, domeka****18:30 Txitxarrilloa** Nagusien etxean

SONDIKAKO INAUTERIAK

20, barikua**10:00 Eskolako umeen kalejira****17:30 Kalejira eskolatik** Txosna gunera.
Sardina, Sorgina eta Buru handiekin**18:00 Xaibor diskofesta** umeentzat**19:30 Txanpi-potea** txosnetan**20:00 Taberna Ibiltaria****23:00 Zopilotes** kontzertua**01:00 Bidean** Erromeria**03:30 DJ****21, zapatua****11:00 Umeen parkea****12:00 Xigorki lehiaketa****12:00 Kalejira “Elaia” txistu**
taldearekin**12:30 Txaranga****13:00 Dantzapoteoa “Gorantzaileak”**
dantza taldearekin**14:30 Herri bazkaria****16:00 Bingo musikatua eta “gazta porra”****16:00 Umeentzako ikuskizuna****18:00 Umeen mozorro desfilea****18:00 Kafeak** Nagusien Etxean**18:00 Musika eta dantza** Nagusien Etxean**18:30 Txaranga****19:00 Umeen mozorro sari banaketa****19:30 Txokolatada****20:30 Kalejira** Lekittoko Deabruekin**21:30 Sardinaren hileta****21:45 Nagusien mozorro, karroza, animazio, xigorki eta erakusleiho sari banaketa****22:15 Talde lokala****00:00 Oinutsik** Erromeria



Whatsapp kanala,
albisteak jasotzeko

Sartu **labur.eus/aikorkanala** helbidean

Sakatu **Jarraitu**, albisteak jasotzeko

Sakatu kanpaintxoa🔔, eduki berria
dagoenean jakinarazpena jasotzeko



EGUZZKIBEGI
IKASTOLA KOOP S

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKALDUNA

0-16 urte

Ongizate emozionala
erdigunean



HH1etik jantokia,
bertan sukaldatuta

Aniztasunaren trataera
integrala

Naturan errotuta

Hizkuntzatan
akreditazio ofizialak



INSTITUT
FRANÇAIS

Erasmus + Nazioartekotzea



944560264
idazkaria@eguzkibegi.net
www.eguzkibegi.eus



MATRIKULAZIOA
Otsailak 2-13

